



ADUNAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORREKO INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN IRISMENEKO DOKUMENTUAREN PROPOSAMENA

Hiri Antolamenduko Plan Orokorrei (aurrerantzean, HAPO) nahitaez egin behar zaie dagokion ingurumen ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura: hala xedatzen dute 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, ingurumen ebaluazioarenak, 6. artikuluan, eta 10/2021 Legeak, abenduaren 9koak, Euskadiko Ingurumen Administrazioarenak, II A) Eranskinean.

Ildo horretan, Adunako Udalak martxan jarri du HAPOa izapidetzeko prozesua, eta, beraz, Ingurumen Ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen 18. artikulua aplikatuz, plan horren ingurumen ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura hasteko eskatu zion Ingurumen Zuzendaritzari 2024ko otsailaren 16an.

Ildo beretik, ingurumen ebaluazioko 21/2013 Legeak 19. artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 10/2021 Legeak 68. artikuluan xedatutakoa betez, planak eta programak prestatzean ingurumen alderdiak integratzeko, irismeneko dokumentua prestatu behar du ingurumen organoak, ingurumen azterketa estrategikoak zenbaterainoko hedadura, xehetasun maila eta zehaztasun maila izan behar duen mugatzeko, ukitutako administrazioei eta interesdunei kontsulta egin ondoren.

Beraz, 10/2021 Legearen 62. artikulua aplikatuz eta ekainaren 30eko 4/2023 Foru Dekretuan eta haren ondorengo aldaketan –uztailaren 14ko 6/2023 Foru Dekretua– ezarritakoarekin bat etorriz, Adunako HAPOaren irismenari buruzko dokumentu hau ematea proposatzen du Ingurumen Administrazioko Zuzendaritza Nagusi honek.

1.- ADUNAKO HAPO-AREN ANTOLAMENDU EREDUA ETA AUKERAK

Adunako Udalak ingurumen ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura hasteko bidalitako dokumentazioan, agiri hauek daude: aurrerapen bat, hasierako dokumentu estrategikoa, eta dokumentu horietako bakoitzari dagozkion planoak.

Aurrerapenak diagnostikoaren sintesi bat egiten du, eta ingurune sozial eta fisikoan nahiz hiri ingurunean zer arazo eta abagune identifikatu diren zehazten du hor. Era berean, zenbait baldintzatzaile gainjarri zehazten ditu arrisku naturalei eta klima aldaketari, azpiegitura berdeei eta interes naturaleko eremuei eta beste araudi sektorial batzuei dagokienez (kulturaren babesa, kutsatuta egon litezkeen lurzoruak, zonakatze akustikoa, zortasun aeronautikoak eta salgai arriskutsuen garraio arriskua). Jarraian, antolamenduaren helburu orokorrak eta oinarrizko irizpideak ezartzen ditu. Azkenik, ingurune fisikoa nahiz hiri ingurunea antolatzeko aukerak deskribatzen eta aztertzen ditu.

Adunako HAPOaren aurrerapena egiteko proposatutako oinarrizko irizpideak honako hauek dira, laburbilduta:

A. *Ingurune fisikoa.*

- Zonakatze berria egiteko orduan, kontuan hartzea dauden ur baliabide ugariak eta baso-masa ugariak.
- Ingurune fisikoaren lurralde antolamendua planteatzean, balioa ematea ingurune naturalari eta barnean hartzea EAEk hartutako ingurumen konpromisoak.



- Lurzoru kutsatuak lehengoratzeari lehentasuna ematea, lurzoru urbanizaezina birkalifikatu aurretik.
- Balio ekologiko handiko eremuen arteko konektagarritasuna sustatzea, igarobide ekologikoak sortuz, ingurune naturalaren zatiketa murriztu eta sare bat eratzeko, biodibertsitatea hobetzeko oinarri egokia birsortuko duena.
- Dauden isurketekin amaitzea, eta, horretarako, ur beltzen saneamendu sarera konekta litezkeen adarrak planifikatzea goialdeetan zerbitzu emateko, baserri multzoak dauden tokietan, edo autoarazteko beste sistema batzuk.
- Ur ibilguen eta ur bilketen afekzio eremuetako erabilerak arautzea eta ibilguak lehengoratzea, ingurumen irizpideei jarraikiz.
- Babes bereziko eremuak eta ekosistemetako ingurumena hobetzekoak planifikatzea, baita lurzoru estrategikoen udal erreserba eta horien kudeaketa publikoa ere.
- Batasunaren intereseko habitaten narriadura saihestea, eta bisoi europarraren habitata zaintzen, mantentzen eta berreskuratzen dela bermatzea.
- Kalitate akustikoaren helburuak betetzen direla ziurtatzea.
- Energia berriztagarriko instalazioen ezarpena arautzea, ingurumena zainduz ezar daitezzen.
- Eraikitako ondarea, elementu txikiak eta interes naturaleko elementuak babestea eta balioestea.

B. Hiri ingurunea.

- Dagoeneko artifizializatutako lurzoruak erabiltzeari lehentasuna ematea. Ahalegin berezia egin behar da nekazaritzako lurzoruak eta lurzoru naturalak babesteko.
- Hiria ez bereizi eta ez sakabanatzea.
- Hiri egitura dentsuak, trinkoak eta konplexuak sustatzea planteatutako beharrei erantzuteko.
- Lurzoruaren erabilerak modu mistoan eta malguan planifikatzea.
- Garapenak kokatzean, kontuan hartzea lurzoruek irisgarritasun ona duten, bai garraio publikoan, bai auto pribatua ez den beste garraiobide batzuek; hornidura eta saneamendu sareetara erraz konektatzeko modua ematen duten; eraginkortasun energetiko pasiborako baldintza egokiak dituzten, eta ur ingurunea, haren zerbitzuak eta ingurua kontserbatzeko aukera ematen duten.
- Egoera naturalean dauden ibilguak ez zuzendu edo bideratzea.
- Eskaria asetzeko baliabide hidriko nahikoen baldintzapean jartzea garapen berriak.
- Plangintza orekatu baten alde egitea, erabilera bateragarrii, espazio libreei eta zuzkidurei dagokienez.
- Industrialdeen funtzionamendua hobetzeko irizpideak txertatzea, eta eraikuntzako eta urbanizazioko ordenantzetan zenbait irizpide sartzea, eraikinen itxuraren hobekuntza eta, beste alderdi batzuen artean, energia berriztagarrien ekoizpena eta autokontsumoa eta energia efizientziaren hobekuntza sustatzeko.
- Udalerriko landare hondakinak eta/edo gainerako hondakin organikoak biltzeko kudeaketa egokia ezartzea toki mailan, beharrezkoak diren azpiegiturak sortuz.

Irizpide horien arabera, aukera batzuk proposatzen ditu ingurune fisikoaren eta hiri ingurunearen zenbait alderditan jarduteko. Jarraian azalduko ditugu alderdi horiek. Alderdi horietako bakoitzerako, aztertutako lehen aukera 0 aukera da beti, hau da, egungo egoera mantentzea, nahiz eta aukera hori ez den ezein kasutan hautatzen. Hasierako dokumentu estrategikoak, bestalde, planteatutako aukeren aurretiazko ingurumen azterketa egiten du, eta ingurumenaren



aldetik onuragarrienak zeintzuk diren adierazten du. Nolanahi ere, kontuan izan behar da aurrerapenean idaztaldeak ez duela haietako bat ere hautatzen behin betiko.

Laburbilduz, alderdi bakoitzerako, aukera hauek aurkezten dira 0 aukeraz gain:

- A. **Hiri eredia eta lurzoruaren okupazio estrategia.** Hasteko, 1. aukera eredu trinko bat da. Epizentroa udalerriko hirigunean du, eta ez dira okupatzen gaur egun urbanizatuta edo degradatuta ez dauden lurzoruak. Egungo arauetako unitate garatugabeetan jardutea ahalbidetzen da, dela eraikigarritasuna handituz, dela tipologia edo ezaugarri orokorrak aldatuz. Era berean, bi lurzati hiri lurzoruko kategorian sartzeko aukera planteatu da, beharrezko baldintza guztiak betetzen baitituzte. Aldiz, 2. aukeran, hiri lurzoruko unitate garatugabeetan edo hutsetan jardutea ahalbidetzen da, eta bi eremu lurzoru urbanizaezin gisa sailkatzeko proposatzen dira: "Elutse A" eta "Elutse B". Hasierako dokumentu estrategikoaren arabera, ingurumenaren ikuspegitik, 1. aukera da onena, lurzoruaren okupazioa murrizten duelako, eta horrenbestez,aldi berean, eragin txikiagoa du ingurumen balioko landarediaren, nekazaritza intereseko lurzoruen eta Batasunaren intereseko habitaten gainean. Ez duenez fidelki irudikatzen udalerraren benetako egoera, bazter utzi da 0 aukera.
- B. **Lurzoru urbanizaezina.** Proposatutako 1. aukerak Nekazaritza eta Basozaintzako LPSra egokitu nahi du indarrean dagoen antolamendua. Ideia berari tiraka, 2. aukerak, lurzoruen benetako egoera xehekiago aztertuz, LPSko zonakatea aldatzen du, eta egungo egoera zehatzago islatuko duen hautabide bat proposatzen. Besteak beste, *Babes berezia* kategoriaren definizioari eragiten dio horrek. Hala, barnean hartuko lituzke "*baso autoktono batzuk, Batasunaren lehentasunezko intereseko habitatak eta Tolosaldeko LPPan ezarritako natura intereseko eremuak*". Gainera, *Ingurumen hobekuntza* kategorian sartzen dira "*kutsatuta egon litezkeen lurzoruen inbentarioan jasotako lurzoruak, Bulandegi harrobiko lurrak, zenbait baso eremu degradatu, sastrakadi eta bazter lur, balio handiagoko eremuetan edo haietatik gertu daudenez haien kalitate egoera hobetzea onuragarritzat jo baita, eta, azkenik, malda handiko eremuak, lurzoru urriak edo higatzeko joera dutenak, eta ezaugarri inbaditzaileak dituzten flora espezie arrotzek okupatutako eremuak*". Halaber, nekazaritzako balio estrategiko handiko lurzoru babestuen azalera birdefinitzen eta handitzen du. Horrekin batera, trantsizioko eta basoko landa paisaiaren azpikategorian sartutako eremu batzuk murriztu dira, baratzegintzaren azken hamarkadetako atzerakadari aurre egiteko. Gainera, igarobide ekologikoen sare baten aurretiazko diseinua proposatzen da, udalaz gaindiko sarearen osagarri, bai eta lurzoru erreserbak sortzea ere, konektagarritasun ekologikoko edo interes naturaleko eremuak babesteko helburuak betetzeko behar diren lursailak lortzeko. Azkenik, baldintzatzaile gainjarriei dagokienez, honako hauek sartuko lirateke: arrisku naturalei eta klima aldaketari buruzkoak, azpiegitura berdeari eta natura intereseko espazioei buruzkoak eta beste araudi sektorial batzuei buruzkoak. LAGen duela gutxiko berrikuspenean ezarritako jarraibideak kontuan hartuta, ikuspegi juridikotik, bazter utzi beharko lirateke 0 eta 1 aukerak, ez dutelako betetzen gaur egun indarrean dagoen legedia. Gainera, 2. aukerak dauka eremuaren antolamendu osatuena eta adierazgarriena, eta tokiko igarobideen sare baten aurretiazko diseinu bat gehitzen du, egungoa osatu eta, gainera, ingurumen balio handieneko lurralde eremuen lotura gisa balioko duena.
- C. **Mugikortasuna.** GI-3610arekiko lotura kontuan hartzeaz gain, Tolosaldeko LPPak eta indarrean dagoen hirigintza planak ezarri bezala, 1. aukerak egungo udal errepidearen zati bat kentzea iradokitzen du, iparraldean trazadura berriarekin lotzen den puntutik Aizpea baserriraino. Bestetik, 2. aukerak barne hartzen ditu 0 eta 1 aukeren trazadurak eta, horrez gain, Altamira kaleko hiribidean esku hartzea proposatzen du, joan-etorri seguruak erraztuko dituen koexistentzia tarte bat sortzeko. Halaber, planteatzen du mugikortasun jasangarriko strategiak aztertu eta proposa litezkeela, hiri garapen berriak direla-eta bizitegi arloan egin diren esku hartzeen ondorioz. Azkenik, udalerraren inguruan ibilbide sare bat inplementatzea proposatzen du, herritarren ibilaldiak eta oinezko mugikortasuna sustatzeko. Horretarako,

herri osoan zeharko ibilbideak aurreikusten dituen diseinu bat iradokitzen du, zeina herrigunean ibilbide itxiak eta zirkularrak ezartzen saiatzen baita, eta barnean hartzen dira zenbait luzapen ere, lehendik dauden bide egokigarrien bitartez ibilbide horiek zabalduko dituztenak. Hasierako dokumentu estrategikoaren arabera, ingurumenaren ikuspegitik, bi aukerek dakartzate jasangarritasun irizpideetan oinarritutako jarduera onuragarriak. Onura horiek handiagoak izango dira 2. aukeran, 1. aukeran sartzen ez diren jarduketa gehigarriak baitaizka. Beraz, ingurumenaren ikuspegitik, bigarren aukera da bideragarriena.

- D. **Espazio libreak.** Batetik, 1. aukerak proposatzen du gaur egun hirigintza plangintzan jasota dauden espazio libre garatu guztiak sartzera, eta, horrez gainera, sistema orokorreko espazio libre gisa finkatzea herriko plaza. Azalera osoa 11.975 m² ingurukoa izango litzateke. Bestetik, 2. aukerak 2.583 m² inguruko espazio berri bat emango dio hiriguneari Elutse eremuko lurzoru urbanizaezinean, hiri baratzeak ezartzeko. Hasierako dokumentu estrategikoak ondorioztatzen du 2. aukera dela bideragarriena ingurumenaren aldetik; izan ere, proposatutako espazio libre gehigarria lurzoru urbanizaezinean badago ere, eta horrek inpaktua eragin badezake ere, hiri baratzetarako erabilera aurreikusiak eta herrigunetik gertu egoteak, non landaredi motak larreak eta laboreak diren, pentsarazten du gehiago izango direla onurak kalteak baino: parke eta berdeguneetarako espazio libreak handitzeak ingurune naturalarekin integratzen ditu hiriguneak eta airearen kalitatea hobetzen du, eta hori onuragarria da herritarren osasunerako.
- E. **Zuzkidura ekipamenduak.** Alderdi honetan, 1. aukerak bere horretan mantentzen du gaur egun hirigintzako plangintzan jasota dauden ekipamendu publiko garatuen sarea, eta sistema orokorreko kirol ekipamendu gisa finkatzen du erdigunearen mendebaldean eraiki den kirol kantxa. Bestalde, 2. aukerak, aurretik abiatuta, gaur egun dauden ekipamenduak finkatu, eta etorkizuneko bizitegi garapenetatik eskuratutako lagapenen ondoriozkoak integratzen ditu. Bi aukera horietako edozeinetan, hiri lurzoru finkatuan egiten dira jarduketak. Hasierako dokumentu estrategikoaren arabera, 2. aukera da bideragarriena ingurumenaren aldetik; izan ere, biek jarduketa onuragarriak proposatu arren, bigarrenak jarduketa osagarri batzuk gehitzen ditu, antropizatu gabeko lurzorua okupatu gabe gainera.
- F. **Jarduera ekonomikoak.** Hemen, 1. aukeraren arabera, ezin dira industria erabilerak gehiago zabaldu, baina lehen eta hirugarren sektoreak indartu behar dira. Lehen sektoreari dagokionez, lurzoru urbanizaezinen antolamenduan balio agrologiko handieneko lurzoruak babesteaz gain, proposatzen da lurzoruren bat gordetzea nekazariei eta abeltzainei beren zereginetan modu kolektiboan lagunduko dien ekipamendu bat sortzeko. Hirugarren sektoreari dagokionez, *coworking* motako lantoki baten kokapena aztertzea proposatzen da. Bestalde, 0 aukerak eragin kaltegarririk ez badu ere, ez du eragin onuragarririk ere ez. Hori dela eta, hasierako dokumentu estrategikoaren arabera, 1. aukera da bideragarriena ingurumenaren ikuspegitik; izan ere, lehen eta hirugarren sektoreari begira proposamenak egiten ditu jardueren arteko oreka handitzeko, eta balio agrologiko handiko lurzoruak babesteko asmoa du.
- G. **Bizitegietarako lurzorua.** Alderdi honetan, 1. aukerak hiri lurzorua trinkotzen du, eremu garatugabeetan hainbat erabilera sartzeko (besteak beste bizitegi erabilera) eta hiri bilbearen barruan espazio hutsak betetzeko aukera ematen duten jarduketan bidez. Trinkotzeko hainbat estrategia planteatzen dira, eremuaren mugaketari, antolamenduari, dentsitateari eta balizko hirigintza kudeaketari dagokienez, eta, beraz, hautabide bat baino gehiago proposatzen da eremu bakoitzerako:
- *Allapur, Gaintza Behekoa eta Zubitxi eremuak.* Horietan guztietan, eraikigarritasun haztatua handitzea proposatzen da. Allapurren, bi familiako bi etxe eraikitzea baimenduko litzateke, familia bakarrekoen ordez; beraz, 2 etxebizitzatik 4ra pasatuko litzateke eskaintza. *Gaintza Behekoan eta Zubitxikin,* Gaintza Behekoa eta Agaramunde baserrietan 4 etxebizitza eraikitzea baimenduko litzateke, indarrean dagoen plangintzan aurreikusten den bezala.



- *Amalkor A eta B eremuak.* Haietarako hiri dentsifikazioa proposatzen da. *Amalkor A* eremuan, eraikitzeke zeuden bi familiako 4 etxebizitzak bloke kolektiboko tipologia duten 3 eraikin bihurtuko lirateke. Hala, 8 etxebizitzaren ordez 22 eskainiko lirateke. *Amalkor B*-n, eraikitzeke dagoen egungo bi familiako eraikina bloke kolektiboko tipologiako eraikin bihurtuko litzateke. Hala, 2 etxebizitzaren ordez 6 eskainiko lirateke.
- *Erramunso aldea.* Tipologia kolektiboko bizitegi bloke bat eraikitzea proposatzen da, 12 edo 18 etxebizitza inguru hartzeko modukoa, hiri bilbean integratutako hiri lurzoru horretan.

Bestetik, 2. aukerak landa egoeran dauden lurzoru batzuk okupatu nahi ditu, etorkizunean lurzoru urbanizagarrian kokatutako bizitegi garapen bihurtu daitezten. Bi eremu proposatzen dira:

- *Elutse A:* herrigunearen iparraldean, askotariko tipologiak eta babes araubideak dituzten 38 etxebizitza eraikitzeke aukera emango luke.
- *Elutse B:* herriguneko bide zirkularra inguratzen duen eraztuna ixtea proposatzen du. Gutxi gorabehera 36-38 etxebizitzako bizitegi eskaintza bat proposatzen da, baina aurrekoa baino trinkoagoa eta landa lurzoru gutxiago okupatuz.

Hasierako dokumentu estrategikoak ondorioztatzen du 1. aukera dela bideragarriena ingurumenaren ikuspegitik, ez baitakar lurzoru berrien okupaziorik eta, beraz, zentzu handiagoz erabiltzen ditu udalerriko ingurumen baliabideak. Hala ere, ez dira bazter uzten 2. aukerako proposamenak, eta ezartzen da zentzuz bateratu beharko direla eskainitako aldaerak, udalerraren beharren arabera eta LAGek ezarritako arauen arabera.

H. **Zerbitzuen azpiegiturak.** Atal honetan, 1. aukerak proposatzen du zerbitzu azpiegiturei dagokienez egindako obrak finkatzea, hala nola GI-3021 eta GI-3022 errepideetako trazaduretan egindakoak, bai eta hiri hondakinak gaika biltzeko egindakoak ere. Aldiz, 2. aukeran, azpiegitura sare batzuetan hobekuntzak egitea proposatzen da:

- *Saneamendua:* ur beltzen saneamendu sarean adarrak egiteko aukera aztertzea eta planifikatzea proposatzen da, baserri multzoak dituzten goiko aldeei zerbitzua emateko, edo autoarazteko beste sistema batzuk ezartzea, uraren kalitatean ondorio negatiborik ez dutela bermatuko dutenak. Orobat proposatzen da ezen, ibaian gora datorren kolektore nagusiaren obra egiten denean, Oria ibaira isurtzen duten industria pabiloiek (batez ere Ibaiondo industrialdekoek) beren kanalizazioak alda ditzatela, sare orokorrekarekin lotzeko.
- *Sare elektrikoa:* herrigunearan, Amalkor eta Erramunsooko dorretxoaren arteko zatian, goi tentsioko linea elektrikoa lurperatzea proposatzen da.

Hasierako dokumentu estrategikoak ondorioztatzen du 2. aukera dela bideragarriena ingurumenaren ikuspegitik, baina, 1. aukerak ingurumen inpaktu negatiborik sortzen ez duenez eta beste gai batzuk jorratzen dituzenez, bi aukerak gauza litezke, elkarren osagarri.

2.- EGINDAKO KONTSULTAK

Adunako Udalaren eskaera jaso ondoren, ukitutako administrazioei eta interesdunei kontsulta egiteko izapidea egin zuen Ingurumen Administrazioako Zuzendaritzak, 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta 10/2021 Legearen 68. artikuluan aurreikusi bezala. Fase horretan, erakunde hauei egin zitzaizkien kontsulta:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako eta Lurralde Oreko Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia.



- Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepideetako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia.
- IHOBE.
- EEE.
- Uraren Euskal Agentzia.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Industriaren eta Energia Trantsizioaren Zuzendaritza.
- Gipuzkoako Ur Kontsortzioa.
- Zizurkilgo Udala.
- Andoaingo Udala.
- Villabonako Udala.
- EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna).
- ENBA (Euskal Nekazarien Batasuna).
- Tolomendi.
- Tolosaldeko Mankomunitatea.
- Tolosaldea Garatzen.
- Eguzki Talde Ekologista.
- Itsas Enara Ornitologia Elkartea.
- Haritzalde Naturzaleen Elkartea.
- Gipuzkoako Ekologistak Martxan talde ekologista.
- Aranzadi Zientzia Elkartea.

Era berean, GFAko Ingurumen Zuzendaritzaren Interneteko atarian (www.gipuzkoaingurumena.eus) eskuragai egon dira aurrerapena eta hasierako dokumentu estrategikoa, jendeak, oro har, egokizat dituen ingurumen alorreko ekarpenak egin ahal izateko.

Amaiturik dela erantzunak bidaltzeko emandako epea, honako hauek jaso dira:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoen Zuzendaritzak azaldu du Oztopoak Iragazkortzeko Plan Zuzentzaile bat dagoela, eta plan horrek aurrez ikusten duela presa eta presa txiki batzuetan esku hartzea, ibaietan bizi diren arrain espezieen migrazio mugimenduak zailtzen baitituzte, eta eraispenak lehenesten dituela beste esku hartze mota batzuen aurretik. Era berean, adierazi du ezen, Natura ondarea kontserbatzeko 9/2021 Legearen 3.2 artikulua araberak, natura ondarearen kontserbazioak lehentasuna duela lurralde eta hirigintza antolamenduaren eta kultura ondarearen gainetik. Hala ere, ikusi du 22 *Adunako errota* eta 24 *La Salvadora* presa elementuak kultura ondare gisa babestea proposatzen duela HAPOaren aurrerapenak, eta eraginpeko ibai tarteak lehengoratzea eragotziko luke horrek. Horrenbestez, Adunako Udalarik eskatu dio aintzat har dezala ingurumenaren aldagaia ondare intereseko elementuen katalogoan sartuko diren eraikinak aztertzean.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritzak Kultura Departamentuaren datu basean dauden ondare elementuen fitxak bidali ditu. Bestalde, jakinarazi du bai HAPOaren aurrerapena bai HAPOa bera egokitu beharko lirakekeela, bat etor daitezen azaroaren 30eko 14/2023 Legeak, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legea aldatzen duenak, ezarritako babes mailekin. Era berean, HAPOak barne hartu beharko ditu Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen 1997ko irailaren 17ko ebazpenean ezarritako



ustezko zona arkeologikoak, bai eta urtarrilaren 10eko 2/2012 Dekretuan ezarritako Donejakue Bidea monumentu multzoko elementu guztiak ere, hor ezarritako babes araubidearekin. Ildo horretan, adierazten du bidalitako dokumentazioan oker bat antzeman dela Donejakue Bidearen babes bereziko multzoaren barruko oinarrizko babesaren eta Euskal Kultura Ondarearen Legeak ezarritako oinarrizko babesaren artean (6/2019 Legearen 8. artikulua eta haren aldaketa). Era berean, udal babeseko elementuen kategoria ere argitu eta ezarri beharko da. Horiei dagokienez, Ondarea - Kultura Ondarearen Zentroak tokiko babeserako proposatzen dituen elementuen zerrenda jasotzen du Kultura Zuzendaritzaren txostenak, eta jada ez daudenak kendu beharko lirateke hortik. HAPOak eremu/sektore bakoitzeko araudi orokorrean eta partikularrean baimentzen dituen esku hartzei dagokienez, ezingo dute urratu babes araubidean eta katalogoan ezarritakoa. Alderdi horretan, gogorarazten da ezin direla eraitsi Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearen arabera babestutako ondasunak. Bestalde, Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legean ezarritakoaren arabera, ikus kutsadura edo kutsadura akustikoa eragiten duten elementuak kontrolatzeko edo ezabatzeko neurriak sartu beharko lirateke. Azkenik, adierazten du Agaramunde eta Aizpea baserriak babesteko eskatu zitzaizola 2011n Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari.

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazi du babeseko araudi edo araubide bat ezarri behar dela katalogoan jasotako elementu guztientzat, arkitektonikoak nahiz arkeologikoak izan eta deklaraturata egon nahiz ez. Era berean, uste du komenigarria dela, HAPOaren ondorengo idazketa faseetan, bat etor daitezela zerrenda guztietako izenburuak eta elementuen zerrenda, hala dokumentazio grafikoan nola idatzizkoan, eta elementu bakoitzaren banakako fitxak sartzera ere, babes partikularreko zer araudi dagokien zehaztuta. Bidalitako hasierako dokumentu estrategikoan jasotako kultura ondareko elementuen zerrendei dagokienez, jakinarazi du ez dituztela jasotzen elementu arkeologiko guztiak, eta ez dituztela aintzat hartzen, ez elementu horiek deklaritzen dituen Agindua/Dekretua, ez eta haien babes araubide berezia ere. Aurrerapenari dagokionez, azaltzen du bi zerrenda desberdin jasotzen dituela, eta lehenengoaren izenburua ("*VI.9.1. EAEko erregistroan babes ertainekotzat inskribatzeko proposatutako higiezinak*") desegokia dela, jada deklaraturako elementuak baitira, ez proposaturakoak. Era berean, ez da nahikoa elementu horiek Donejakue Bidea monumentu multzoaren barruan aipatzea; izan ere, haien babes araudia edo araubidea ere adierazi beharko da, eta argi eta garbi aipatu ezen bi arau hauetan ezarritako babesaren pean daudela: *2/2012 Dekretua, urtarrilaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Donejakue Bidearen zatia Monumentu Multzoa kategoriako Kultur Ondasun Sailkatua izendatzekoa*, eta *66/2022 Dekretua*, hura aldatzen duena. Gainera, Donejakue Bidearen ibilbideari dagokionez, gomendatzen da hari jarraitutasuna ematea, modu ibilgarri eta seguruan, tratamendu berezia eginez lurzoru urbanizaezinen eta etorkizuneko hiri lurzoruaren arteko trantsizioan. Bestalde, *14/2023 Legearen* onarpena tarteko, ezartzen da udalak bi babes maila zehaztu beharko dituela plan berriaren katalogoan: batetik, "*6/2019 Legearen ondorioetarako oinarrizko babesa duten kultura ondasunak*", non sartuko diren 8.1.c) artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen dituztenak, eta, bestetik, *udal babeseko kultura ondasunak*, non, gomendioaren arabera, sartu beharko diren oraingo *VI.9.2. Oinarrizko babeseko eraikinak* tituluko elementuak, salbu eta *Santa Kruz basiliza*, zeina Donejakue Bidea monumentu multzoaren zati baita, eta *17 Adunako frontoia* elementua. Euskal Kultura Ondarearen Zentroak ezarritako babes irizpideekin bat etorriz, bestetik, gomendatzen da *317/2022 Dekretuaren* I. eranskinean aurreikusitako "Sendotzea" nahiz "Zaintzea eta apaintzea" esku hartze motak aplikatzea udal babeseko ondasun arkitektoniko horiei, eta, haietan esku hartuz gero, haien bolumetria, kanpo itxura eta oinarrizko banaketa tipologiko eta estrukturala errespetatzea, eta egituraren material generikoa mantentzea. "*Ondare arkeologikoa*" atalari dagokionez, izenburua aldatu beharko da, edo bi zerrendatan banatu egungo zerrenda bakarra; izan ere, adierazitako eremu eta multzo arkeologikoen barruan dauden bi elementuek babes maila desberdinak dituzte, eta, beraz, ezin dira "*VI.9.3.1 Babes bereziko eremu eta multzo arkeologikoak*"



izendapen berean sartu biak. Era berean, ustezko zona arkeologikoen zerrendan, bereizi egin beharko dira jadanik deklaratu daudenez udalaren proposamen izan ezin direnak eta proposatu nahi direnak, hala nola "*Larrerdi gailurra*". Azken horiek eremu deklaratuena ez den beste zerrenda batean sartu beharko dira, eta egokitzat jotzen den babes araubidea ezarri beharko zaie (6/2019 Legearen 65. artikulua). Bestalde, mugatu egin beharko dira 13. eta 14. *Lepasoroko haitzuloa* gune arkeologikoak, eta zehaztu zer babes araubideri lotuta dauden, arau hauetan ezarritakoaren arabera: *Agindua, 2015eko azaroaren 2koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, zeinaren bidez II. eranskinean zerrendatzen diren Gipuzkoako Lurralde Historikoko haitzuloetako aztarnategiak Kultura-ondasun gisa sartzan diren, Monumentu Multzo kategoriarekin, Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Nagusian eta 137/2003 Dekretua, ekainaren 24koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan dauden eta I. eranskinean zerrendatu diren Estazio Megalitikoak Monumentu Multzo izendapenez, Kultura Ondasun gisa deklaratzeko eta babes-araudia ezartzeko dena*. Azkenik, *Gerra Zibileko "Saseta" defentsa sistemari* dagokionez, gomendioa honako hau da: Belkoango gailur nagusitik (Andoango mugan) hasi eta Zizurkilgo mugaraino, iparraldean 400 m-ko eta hegoaldean 300 m-ko sestra kurbaren arteko zerrendan, baso masak mugitu edo manipulatzeko badira, prospekzio bat egitea jarduketan aurretik, eta hala jasotzea HAPOaren katalogoan.

- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak, bestalde, Eusko Jaurlaritzak onartutako lurralde planetan eta babes zibileko plan berezietan Adunako udalerrirako jasota dauden babes zibileko arriskuen berri eman du.
 - *Uholde arriskuak*. Oria ibaiaren eta Zubiaurretiko eta Ursalto ibaiadarren ibilguari lotutako uholde arriskuak daude. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Planean eta EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektorialean xedatutakoa bete beharko da, azterketa eremuan dagoen uholde arriskua handitzea saihestu, eta 500 urteko errepikatze denborako uholde kotatik gora kokatu instalazioak. Era berean, administrazio hidraulikoaren baimenean ezarritako baldintzak bete beharko dira. Bestalde, jakinarazi du eremuko prezipitazioen isomaximoak 275 mm/egun direla 500 urteko errepikatze denbora baterako, eta drainatze obrak diseinatzeko kontuan hartu beharko dela hori.
 - *Ibiurko presa*. Hiri plangintzan kontuan hartu behar dira presa hautsiz gero edo hura gaizki funtzionatuz gero sor litezkeen uholde orbanak.
 - *Arrisku sismikoa*. Arrisku Sismikorako Larrialdi Planaren arabera, V eta VI intentsitateko eremuan dago udalerria eta, hortaz, ez du Larrialdi Sismikoko Planik egin beharrik. Nolanahi ere, eraikin berriak egitean, kontuan hartu beharko da Lurrikaren aurkako Eraikuntza Araua (irailaren 27ko 997/2002 Errege Dekretuak onartua).
 - *Baso suteen arriskua*. Jakinarazten da kontuan hartu beharko direla, hirigintzako plangintzari begira, EAEko Baso Suteetarako Larrialdiko Plan Bereziaren VI. eta VII. eranskinetan jasotako baldintzak, sute arrisku handia duten baso eremuen edo hiriko eta basoko interfaze eremuen erabileretarako nahitaez Autobabes Plana egin beharri dagokionez.
 - *Arrisku teknologikoa. Salgai arriskutsuen garraioa*. Adunan, bi komunikazio bidetan garraia daitezke salgai arriskutsuak: alde batetik, N1 errepidean, non 3 mailatako arriskua kartografiatu den (altua, ertaina eta baxua), bide tartearen arabera, eta, bestetik, Madril-Irun trenbide linea, non arrisku kartografiatu ertaina dagoen udalerraren hegoaldean. Halaber, jakinarazi du ezen, abiadura handiko trenbide berria martxan jarri aurretik, zer arrisku eta hirigintzako plangintzan zer eragin duen ebaluatu beharko dela. Arrisku horretarako, aztertutako azpiegituraren alde banatan 600 metroko lerro bat hartuko da kontuan, trenbideekiko paralelo.



- Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Oreka Berdearen Departamentuak jakinarazi duenez, udalak aurkeztutako dokumentuetan, lurzoru urbanizaezina antolatzeke proposatutako aukerek ingurumenean zer eragin izango duten ebaluatzen da, baina ez da ebaluatzen, ordea, zer eragin izango duten nekazaritzaren sektorean, Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSan ezarri bezala. Hala ere, lurzoru urbanizaezina antolatzeke hautatu den aukerak balio estrategiko handiko lurzoruaren azalera handitzen duenez, batez ere hirigunearen inguruan, eta ez denez aurreikusten eragina izango duenik, ez bideragarritasun ekonomikoan, ez lehendik dauden eraikin eta ustiattegietako azpiegituretan, ondorioztatu da aurreikuspenen arabera HAPOak ez duela kalterik eragingo nekazaritza sektorean. Edonola ere, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSan ezarritakoaren arabera definitu beharko ditu HAPOak antolamendu kategorien erabilerak.
- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak, oro har, ontzat eman du lurzoru urbanizaezinerako proposatutako antolamendua, baina zenbait gogoeta helarazi ditu. Hala, beharrezkotzat jotzen du informazio gehigarria ematea Balio Estrategiko Handiko kategorian Nekazaritza eta Basozaintzako LPSkoak gainditzen dituzten eremuak mugatzeko kontuan hartu diren irizpideei buruz. Era berean, aipatzen du lurzoru urbanizaezinen antolamenduan hainbat kategoriatan banatzen dela Nekazaritza eta Basozaintzako LPSko *Basoa* kategoria: *Babes berezia*, *Ingurumen hobekuntza* eta *Basoa*, eta *Ingurumen hobekuntza* kategorian sartutako azalera batzuetan ustiatzen ari diren baso sailak daudela. Haren ustez, horrek, bai eta plangintzak basoen kudeaketari dagokionez erabiltzen dituen helburu eta irizpideek ere, zalantzak sortzen ditu ea bateragarriak diren proposatutako kategorizazioa eta ukitutako baso eta sailen antolamendu eta kudeaketa planak. Plan orokor batek ez luke barnean hartu beharko, haren iritziz, sektoreko jarduera erregulatzen duen arau xedapenik, edo sektoreko administrazio eskudunek garatu beharreko politika sektorialen plangintza eragozten duenik. Hirigintzako araudiari dagokionez, gogorarazi du kontuan hartu beharko dituela Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren 10. artikuluan adierazitako loturak, hau da, berariaz jaso beharko dituela *balio estrategiko handiko* lurzoru urbanizaezineko eremuei lotutako araudia eta *onura publikoko mendien eta mendi babesleen* arauzko izaera. Era berean, aintzat hartu beharko ditu LPSaren kapitulu hauetako edukiak: III. kapitulua (*lurraren erabileren eta jardueren definizioa*), VI. kapitulua (*erabilera onargarriak eta debekatuak argitzea, eta baldintzak ezartzea lehendik dauden herriguneetan oinarritutako hazkundeetarako*) eta VII. kapitulua (*baldintzatzaile gainjarrietan aplikatzeko arauak*). Era berean, kontuan hartu beharko ditu LPSaren II. kapituluko (*Jarraibide nagusiak*) 11., 12. eta 13. artikuluetako edukiak. Hurrenez hurren, lurzoru urbanizaezinean nekazaritzako eraikuntza berriak, nekazaritza ustiategi bati lotutako etxebizitza isolatuak eta abeltzaintzako instalazio intentsiboak eraikitzeke baldintzak arautzen dira artikuluko horietan. Nekazaritzako lurzoruaren okupazioari dagokionez, HAPOak proposatutako hiri ereduko aukerak *laborantza lur*, *fruta arboladi*, *zuhaixka larre* eta *larre gisa* definitutako nekazaritza erabilerak ukitzen ditu, eta, espazio libreei dagokionez, proposatutako hautabidea bat dator *nekazaritzako lur* eta *larre gisa* definitutako SIGPAC nekazaritza erabilerak dituzten balio estrategiko handiko lurzoruekin. Era berean, plangintzan proposatutako garapenek Oriaren ibarrean kokatutako nekazaritza erabileretarako hiri lurzoruen azalera handi bat hartuko dute. Ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzaren txosteneko 2.3 atalean adierazitako jarraibideak eta orientabideak kontuan hartzeaz gain, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren 10e artikuluan ezarritako Nekazaritza Sektorearen Eragina Ebaluatzeke protokoloa aplikatu beharko da, eta, emaitzaren arabera, dagozkion prebentzio, zuzenketa eta konpentsazio neurriak zehaztu. Azkenik, gomendatzen da zenbait jarduketara programa sartzea nekazaritza jarduerak mantentzeko eta abandonatuta edo desagertzeko arriskuan dauden lurrak kudeatzeko, baita jarraipen sistema batzuk ere, txostenaren 2.3 atalean adierazitako helburu eta jarraibideekin lotuta.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzak biodibertsitatean eragina duten jasangarritasun irizpide batzuk definitzen ditu HAPOak kontuan har ditzan. Era berean, ingurumen helburuen adierazle batzuk azaltzen ditu,

zeinetarako balio hauek kalkulatu beharko liratekeen: egungo balioa, ingurumen helburuak betetzeko lortu beharko lukeena (arrakasta irizpidea), eta, azkenik, proposatutako plangintza aplikatuz gero izango lukeen balio zenbatetsia. Logikoa denez, balio zenbatetsiak ez badu betetzen arrakasta irizpidea, plana birformulatu edo berariazko justifikazio bat aurkeztu beharko da. Bestalde, lurzoru urbanizaezina antolatzeke proposamenari dagokionez, egokitzen jotzen da 2. aukera, hasierako dokumentu estrategikoaren arabera bideragarri den bakarra. Era berean, hiriaren eta lurzoruaren okupazioaren ereduak dagokienez, zenbait ohar egin ditu 18 Erribera sektoreko egungo lurzoru urbanizagarriaren birkalifikazioari buruz, aurrerapenak sektore hori hiri lurzoru gisa finkatzea planteatzen baitu. Ereku horrek balio agrologiko handiko lurzoruak ditu, Oria ibaiaren uholde lautadari lotuak, eta haien hedadura handia tarteko, beharrezkotzat jotzen da hura garatzeko beharra justifikatzea edo, bestela, sailkapen hori kendu eta lurzoru urbanizaezin bihurtzea. Bestalde, HAPOko esku hartze eremu guztietarako ezartzen du zaharberitze plan bat idatzi beharko dela plangintza xehatuaren garapenean edo urbanizazio proiektuetan, halakorik bada, bere txostenean zehaztutako irizpide sorta baten arabera. Gainera, HAPOaren araudian jaso beharko da lehengoratzeko plan horren beharra. Era berean, landaredi interesgarria kentzen bada, justifikatu egin beharko da, eta, nolahi ere, konpentsatu egin beharko da, ukitutako azalera bera edo handiagoa lehengoratuz lurraldeko edo udalerriko beste eremu degradatu batean. Era berean, ez da kalterik eragin behar interes bereziko eremuetan eta mehatxatutako basafauna edo basafloa espezieak babesteko edo berreskuratzeko eremuetan; horretarako, ordezkari aukerak bilatu beharko dira garapen berriak kokatzeko, eta/edo prebentzio eta zuzenketa neurriak hartu. Azkenik, garapen berrien proposamenek esku hartzea paisaian integratzeko neurriak hartu beharko dituzte barnean.

- EEEk energiaren eta ingurumenaren arloko esparru estrategiko eta arauemailea aztertzen du alde aurretik, eskumen maila guztiei dagokienez (Europa, Estatuak eta Euskadi). Era berean, energiaren alorra ukitzen duten LAG gidalerroak aztertzen dira. Ondoren, zenbait proposamen edo iradokizun egiten ditu, HAPOko arauak prestatzeko garaian kontuan har daitezkeen. Jarraian azalduko ditugu. Lurzoru urbanizaezinarik dagokionez, Euskadiko Energia Berriztagarrien LPSa oraindik izapidean den arren, iradokitzen du aprobetxamendu berriztagarriko eremu egokiak mugatu edo identifikatzea eta lurzoru kategorietan nola ezarriko den arautzeko erregimena garatzea. Halaber, ekoiztutako energia elektrikoa biltegitratzeko instalazioen ezarpena erraztu beharko litzateke. Era berean, nekazaritzarako erabiltzen diren lurzoruetan instalazio fotovoltaikoak ezartzea sustatu beharko litzateke, laborantza lurretan erabilera onargarriari lotuta daudenen artean sarturik erabilera hori. Bestalde, nekazaritzan eta abeltzaintzan erabiltzekoak diren gainerako lurzoruetan, autokontsumorako energia berriztagarriko instalazioak ezartzearekin bateragarria izan ahal daitezela sartzeko proposatzen da, batez ere, baldin eta, ezintasun tekniko tarteko, lurzoruan instalatu behar badira, baina ustiategiari lotuta. Lurzoru urbanizagarriari eta hiri lurzoruari dagokienez, planteatzen da energia berriztagarriko instalazioen eta beste erabilera batzuen arteko bateragarritasuna sustatzea, adibidez, lur gaineko aparkaleku erabilera duten espazioetan. Era berean, lurzoruan sorkuntza banatuari lotutako aprobetxamendu berriztagarriko instalazioak ezartzeko aukera ematea eta, garapen berriko eremuetan eta hiria eraberritu eta berronertzeko eremuetan, geotermiaren edo biomasaren bidez beroa aprobetxatzeko sare kolektiboak sartzeko. Azkenik, proposamen orokorreari dagokienez, planteatzen da, besteak beste, ibilgailu elektrikoak kargatzeko instalazioak ezartzea, titulartasun publikoko eraikinetan energia berriztagarriaren erabilera sustatzea eta udalerrian energia komunitateen garapena sustatzea.
- URAk honako ohar hauek egin ditu:
 - *Jabari publiko hidraulikoaren eta hari lotutako babes eremuen babesari dagokionez*: lurzoru urbanizaezinarik kategorizazioan "azaleko uren babes" kategoria sartu beharko da. Era berean, garapen eremuetako hirigintza fitxetan, EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeke LPSko F atalean eraikuntzarako eta urbanizaziorako ezartzen diren gutxiengo atzerapenak



sartu beharko dira, eta ezinbesteko baldintza gisa ezarri beharko da ibaiaren egoera naturalaren eta erriberako landarediaren babes eta kontserbazioa, edo, hala badagokio, berroneratzea. Azkenik, hirigintzako araudian jaso beharko da ibilguekin muga egiten duten obrek igarotzeko libre eta oztoporik gabe eta lurra aldatzeko esku hartzerik gabe utzi behar dituztela jabari publiko hidraulikoko zortasun eremuak (5 m). Gainera, jabari publiko hidraulikoari eragiten dion edo babes eremuetan kokatzen den jarduketa orok Agentzian izapidetu beharreko administrazio baimena izan beharko du.

- *Uholde arriskuari dagokionez*, gogorarazi du ezen, 18-B Erribera sektoreko Plan Partzialaren Aldaketa Puntualean aurreikusitako garapena gauzatzeko, ezinbesteko baldintza dela alde zuzenetik "Adunako ibarrean Oria ibaiaren ingurumen egokitzapena eta egokitzapen hidraulikoa egiteko proiektuaren" obrak eginak izatea. Bestalde, uholde eremuetan, Plan Hidrologikoaren araudiko 37.etik 45.era bitarteko artikuluek lurzoruen erabilerei ezarritako mugak bete behar dira. Gainera, ingurumen dokumentu estrategikoaren II09 *Hidrologia eta uholde arriskua* eta aurrerapenaren *A12 Arrisku naturalak* planoetan, lehentasunezko fluxu eremua mugatu beharko da. Azkenik, urbanizazio proiektuetan, adierazi beharko da urbanizatuko den lurzoruko espazio libreetako zer ehunekok duen akabera iragazkorra.
- *Ur baliabideen eskuragarritasunari, hornidurari eta saneamenduari dagokienez*. Hirigintza garapen berrien saneamendua Uraldeko HUAN amaitzen den saneamendu sare orokorraren bitartez bideratu beharko da. Bestalde, jabari publiko hidraulikoa kutsa dezaketen euri uren jariatze urei Administrazio Hidraulikoaren isurketa baimenaren prozedura egin beharko zaie. Era berean, barnean hartu beharko da erakunde kudeatzailearen adostasun txostena, non justifikatuko baita dauden sistemak gai direla behar eta karga berriei zerbitzu emateko, edo, hala izan ezean, zer aurreikusten den ildo horretan egon litezkeen arazoei irtenbidea emateko. Azkenik, A.11 *Zerbitzuen azpiegiturak* planoetan, udalerraren ipar-mendebaldeko eta hego-mendebaldeko eremuak sartu behar dira, egun hirigintza garapenak baitituzte, baita Goiburuko landa eremua ere. Era berean, gaur egungo zein etorkizuneko hornidura eta saneamendu sarea mugatu beharko dira.
- *Eremu babestuen erregistroari dagokionez*, zuzendu beharko dira dokumentazio kartografikoan nahiz idatzizkoan Plan Hidrologikoko datuekin konparatuta igarri diren aldeak.
- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak jakinarazi du HAPOk baliabide hidrikoen eskariaren azterketa bat jaso beharko duela, Plan Hidrologikoaren Berrikuspenaren Araudiaren 14. eta 15. artikuluetan eta 6. gehigarrian ezarritakoa kontuan hartuta, eta saneamendu- eta arazketa-premien azterketa bat, horien artean lehentasunezko aukeratzat hartuko baita garapen-eremu guztiak saneamendu-sistema publikoekin lotzea. Era berean, aipatzen du hirigintza-garapen berriek zoladuraren edo okupazio iragazgaitzaren zenbatekoa minimizatu beharko dutela behar-beharrezkoa den azaleretan, eta drainatze iraunkorreko sistemak sartu beharko dituztela. Uholde-arriskuari dagokionez, oro har, Plan Hidrologikoaren Araudiaren 37. artikulutik 45.era bitartekoetan ezarritako mugak errespetatu behar direla adierazi du, bai eta 43.d) eta 45.3 artikuluetan zuzkidura-erabilerei buruz adierazitakoa ere. Halaber, ibilguen polizia-eremutik kanpo urak har dezakeen eremuan kokatu nahi diren garapen-eremuetarako, lurraldearen antolamenduan eta hirigintzan eskumena duten administrazioek baimendu beharko dituzte erabilera eta jarduera guztiak. Erribera 18. sektoreari dagokionez, adierazi du "Adunako ibarrean Oria ibaiaren ingurumena eta hidraulika egokitzeko proiektuan" zehaztutako obrak egin ondoren, egin nahi den jarduketa bateragarria izango dela ondoriozko uholde-arriskuarekin. Era berean, adierazten du gurutzatzen diren edo jabari publiko hidraulikoko ibilguekin mugatzen diren eremuak etorkizunean antolatzeko ezartzen diren baldintzetan, horiei lotutako baldintza naturalen eta erriberako landarediaren beharrezko kontserbazioa jaso beharko dela, eta zortasun-eremua libre utzi beharko dela, besteak beste, oinezkoentzako pasabide publikoetarako eta zaintza-zerbitzuak garatzeko. Oro har, eremu horretan ezin izango da inolako eraikuntzarik egin.



Irismen txosten hau egin ondoren erantzunik jasotzen bada, lehenbailehen igorriko zaio Adunako Udalari, HAPOa eta ingurumen azterketa estrategikoa egitean kontuan har dadin.

3.- INGURUMEN HELBURU ESTRATEGIKOAK, JASANGARRITASUN IRIZPIDEAK ETA ARAUZKO ITURRIAK

Udalerriko lurraldearen antolamendu osoa egiteko oinarritzko tresna denez, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aukera eman beharko du, ingurumen alderdiak behar bezala jasorik, hirigintzako eta azpiegituretako jardueren ondoriozko ingurumen inpaktu kaltegarriak minimizatzeko, eta udalerriko ingurumenaren kalitatea hobetzen laguntzeko.

A. HAPOaren ingurumen helburu estrategikoak, gutxienez, jasangarritasun helburu eta irizpide hauetan oinarritu behar dira:

- Ingurumenean egin litezkeen kalteak zuzentzea eta konpentsatzea baino, prebentzioa lehenestea, HAPOa formulatzean ingurumen alderdiak egoki kontuan harturik, eta, aldi berean, ingurumena hobetzeko proiektuak eta jarduketak proposatzea eta txertatzea.
- Saihestu ezinekotzat jotzen badira, egiaz izandako kapital naturalaren galerak konpentsatzea. Plangintza tresnan honako hauek definitu behar dira:
 - Nola konpentsatuko den, eta horretarako azterlan bat egin beharko da aurretik, lehentasunak definitzeko, berreskuratzea komeni den eremu degradatuetan eta zehaztuta edo zehazteko dagoen bertako igarobide ekologikoen sarean oinarrituta.
 - Konpentsatzeko jarduketak hartuko dituzten lurren lorpena sailkatuko den lurzoruari lotuta geratu beharko da, esaterako, atxikitako sistema orokor baten bitartez edo zuzkidura publikoak lortzeko jarduketa baten bidez.
 - Sektore berriaren urbanizazio gastu gisa sartuko da konpentsazio neurrien kostua, eta eraikitze lizentziak eman aurretik gauzaturik egon beharko dira neurri horiek.
- Lurraldearen eta hirigintzako antolamenduan jasangarritasun energetikoaren ondoriozko baldintzak txertatzea. Ildo horretan, hirigintzako plangintzak energiaren autohornikuntza bultzatuko du. Horretarako, lehentasuna emango zaio iturri berriztagarrietatik energia lortzeko soluzioak ezartzeari eta hiriko bero sareen bidez energia sortzeko eta banatzeko sistema zentralizatuak garatzeari. Era berean, lehendik dauden eraikin eta espazio urbanizatuen energia efizientzia hobetzea bultzatuko du, eta, etorkizuneko eraikin eta espazio publikoak planifikatu, proiektatu eta gauzatzeko, irizpide bioklimatikoak eta energia kontsumoa minimizatuko duten sistema pasibo eta aktiboak erabiliko ditu.
- Lurzoruari erabilerak esleitzeko, kontuan hartzea naturaren eta nekazaritzako baliabideen kalitatea eta kalteberatasuna, ingurumenaren kalitatea eta klima aldaketa, eta zer-nolako ahalmena duten eremu horiek aurreikusi diren erabilerak hartzeko.
- Lurzoruen artifizializazioa eta hazkunde demografikoa bereiztea. Lurzoru berria sailkatu aurretik, sailkatutako lurzoruen okupazioa agortzea; egoki justifikatzea lurzoru urbanizagarri berrien sailkapena, nahikotasunean eta egokitasunean oinarrituta; eta zorrotz ezartzea zenbat lurzoru behar den benetan dauden premiak asetzeko. Unean uneko egoera sozioekonomikoa eta indarrean dauden jasangarritasun irizpideak kontuan hartuta ez badagokio lurzoruen hirigintzako garapena aurrera eramatea, hura desklassifikatzea eta lurzoru urbanizaezinari "itzultzea".
- Egin litezkeen hirigintza garapenak eta azpiegiturek aurkitu eta antolatzea, honako hauek bermatzeko moduan:



- Natura baliabide baliotsuen gaineko eragina minimizatzea (landaredi autoktonoa, egoera naturalean dauden ibilguak, balio agrologiko handiko lurzorua, etab.).
 - Arrisku naturalak prebenitzea (uholde arriskua, kutsatuta egon litezkeen lurzorua, etab.).
 - Ur hornikuntzako eta saneamenduko sareetara konektatzeko aukera izatea, garapen horietan zerbitzu egokia bermatzeko.
 - Energia efizientzia pasiborako baldintza egokiak izatea.
- Dentsitate ertaina edo handia eta erabilera aniztunak eta konplexuak dituzten hirigune konpaktuak eta askotarikoak lehenestea, eta alde batera uztea dentsitate txikiko edo oso txikiko bizitegi eta industria garapen berriak, baita etxebizitza isolatu edo atxikiak ere, lurzoru, energia eta material kontsumo handiko hiri eredu sakabanatua eta lausoa indartzen baitute.
 - "Etxebizitza hutsen" okupazioa sustatzea eta eraikitako ondarea birgaitzea, ez dadin altxatu eraikin berririk.
 - Lehendik dauden hiri sareen optimizazio funtzionala eta birmoldaketa sustatzea, horiek birgaituz, berregituratuz nahiz zaharberrituz, eta bazterguneak berreskura daitezela bultzatzea, lurzoru eta baliabideak optimizatzeko estrategia gisa.
 - Hirietan bereizketa eta sakabanaketa saihestea, erabilerak eta jarduerak egoki uztartu eta ezkon daitezela ahalbidetzeko, eta, hartara, jendea ahalik eta gutxien mugiarazteko.
 - Mugikortasun zentzuzkoago eta jasangarriago bat sustatzea, banaketa modalean oinezko joan-etorriak, bizikleta eta garraio kolektiboa indartu, eta ordezkoko erregaiak erabiltzen dituzten garraiobideak sustatuko dituen.
 - Biodibertsitatearen elementu berezien gaineko eragina saihestea (bertako landareak, mehatxupeko espezieen habitatak, eta abar), eta ondare naturalaren egoera orokorra eta ingurumen zerbitzuak emateko daukan gaitasuna mantentzea edo hobetzea.
 - Lurzoru urbanizaezinerako antolamendu egokia ezartzea, landa ingurunea zaintzeko, oreka egokia bilatuz garapen ekonomikoaren, ekosisteman betetzen duen eginkizunaren (lehengaiz hornitzea, ingurunearen kontserbazioa...) eta ingurumenaren eta paisaiaren behar bezalako kalitatearen artean.
 - Espazio eta elementu naturalen kalitatea eta funtzio aniztasuna mantentzea eta lehengoratzeko, udalerriko azpiegitura berdea behar bezala planifikatuz eta kudeatuz, balio ekologiko handiko eremuen arteko konektagarritasuna sustatzeko, ondare naturalaren egoera orokorra hobetzeko eta zerbitzu ekosistemikoak emateko daukan gaitasuna hobetzeko.
 - Paisaiaren faktorea txertatzea plangintzan, paisaiaren babesa, kudeaketa eta antolamendua bultzatuz, Paisaiaren Europako Hitzarmenak ezartzen duen bezala.
 - Eraikuntza lanek, oro har, (eraikinak, egiturak, urbanizazioa) eta horien funtzionamenduak baliabideen (ura, energia eta materialak), hondakinen eta kutsatzaileen balantzean eragindako ondorio kaltegarriak murriztea, eta zikloak ixtera jotzea.
 - Baliabide eta ingurune hidrikoak babestea, zaintzea eta lehengoratzeko (ur kontinentalak, lurpekoak eta lur gainekoak), eta Uren Esparru Zuzentarauko helburuak erdiesten saiatzea. Ildo horretan, uren arloko araudiak ezarritako atzerapen eta zortasun eremuak gordeko dira, eta egungo nahiz etorkizuneko isurketak behar bezala tratatzen direla bermatuko da.

B. Bestalde, Adunako HAPOa formulatzean, kontuan hartuko dira arau eta agiri hauetan dauden jasangarritasun irizpideak eta printzipioak:



- Nazio Batuen Erakundearen 2030 Agenda.
- Europar Batasunaren 2030era arteko Ekintza Programa Orokorra ingurumenaren arloan.
- Europako Itun Berdea.
- Euskadiko Ingurumeneko Esparru Programa 2030.
- Euskadiko lurzorua babesteko 2030erako estrategia.
- Euskadiko Baso Plangintza (1994-2030).
- Euskadiko Biodibertsitate Estrategia 2030.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Geodibertsitatearen Estrategia 2020.
- Klima Aldaketaren aurkako 2050 Euskal Estrategia.
- Euskadiko Ekonomia Zirkularrerako Estrategia 2030.
- Bultzatu 2050 Hiri Agenda.
- Gipuzkoako Jasangarritasun Energetikoaren Estrategia 2050.
- Euskadiko Energia Estrategia 2030.
- Gipuzkoako Klima Aldaketaren aurkako Borroka Estrategia 2050.
- 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duena (3. eta 20. artikulua).
- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (3. artikulua).
- 7/2021 Legea, maiatzaren 20koa, klima aldaketarena eta trantsizio energetikoarena (2. artikulua).
- 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa (2. artikulua) eta 9/2021 Legea, azaroaren 25ekoa Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzkoa (3. artikulua).
- 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena (3. artikulua).
- 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko (4. artikulua).
- 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa (6. artikulua).
- 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena (1. eta 2. artikulua).
- 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa (5. eta 6. artikulua).
- 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa (2. artikulua).
- Azpiegitura berdearen eta konektibitate eta leheneratze ekologikoen Estatuko estrategia (2.3.8. atala).

C. Azkenik, irismeneko dokumentu hau egiteko, ingurumen arloko arau hauei erreparatu zaie nagusiki, eta Adunako HAPOa egitean ere aintzat hartu beharko dira:

Europakoak



- 92/43 (EEE) Zuzentaraua, Kontseiluarena, 1992ko maiatzaren 21ekoa, habitat naturala eta basa fauna eta flora babesteari buruzkoa.
- 2000/60 (EE) Zuzentaraua, 2000ko urriaren 23koa, uren politikaren alorrean Europako erkidegoaren jarduketara esparrua xedatzen duena.
- 2002/49 (EE) Zuzentaraua, zaratarena.

Estatukoak

- 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen ebaluazioari buruzkoa.
- 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duena.
- 7/2021 Legea, maiatzaren 20koa, klima aldaketarena eta trantsizio energetikoarena.
- 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa.
- 43/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, Mendiei buruzkoa.
- 37/2003 Errege Dekretua, azaroaren 17koa, Zaratari buruzkoa, eta 1367/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duena, zonakatzeko akustikoari, kalitate helburuei eta emisio akustikoei dagokienez.
- 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, ekainaren 20koa, Uren Legearen testu bategina onesten duena, eta hura garatzeko araudiak.
- 35/2023 Errege Dekretua, Kantauriko Demarkazio Hidrografikoaren 2022-2027 aldiko Plan Hidrologikoa onartzen duena.
- 197/2023 Errege Dekretua, martxoaren 21ekoa, besteak beste, Kantauri Ekialdeko demarkazio hidrografikoaren Espainiako zatiaren uholde arriskua kudeatzeko planaren berrikuspena eta eguneraketa onartzen duena.
- 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko.
- 16/1985 Legea, ekainaren 25ekoa, Espainiako Kultur Ondareari buruzkoa.

Autonomiakoak

- 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoa.
- 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.
- 128/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Gidalerroak behin betiko onesteko dena.
- 64/2020 Dekretua, maiatzaren 19koa, Tolosako Eremu Funtzionaleko (Tolosaldea) Lurralde Plan Partziala behin betiko onartzen duena.
- 177/2014 Dekretua, Nekazaritzako eta Basozaintzako Lurralde Plan Partziala behin betiko onartzen duena.
- 415/1998 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiertzak eta Errekaertzak (Kantauri isurialdea) Antolatze LPSa behin betiko onartzen duena, eta haren ondorengo aldaketa (449/2013 Dekretua)
- 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa.
- 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena.

- 4/2015 Legea, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa, eta hura garatzen duen dekretua.
- 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots kutsadurari buruzkoa.
- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa, eta haren ondorengo aldaketak.
- 46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde antolamenduko planak eta hirigintza antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena.
- 9/2021 Legea, azaroaren 25ekoa, Euskadiko natura ondarea kontserbatzeari buruzkoa.
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultur Ondarearena.
- 2/2007 Legegintzako Dekretua, azaroaren 6koa, Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartzeko dena.
- 317/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoa.
- 7/2022 Legea, ekainaren 8koa, Landa Ingurunearen Garapenarena.
- 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa.
- 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa.
- 1/2024 Legea, otsailaren 8koa, Trantsizio Energetikoarena eta Klima Aldaketarena.

Gipuzkoakoak

- 7/2006 Foru Araua, urriaren 20koa, Gipuzkoako mendiena.
- 2/2013 Foru Araua, ekainaren 10ekoa, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartzen duena.

4.- INGURUMEN EBALUAZIOAREN EREMU GEOGRAFIKOA. ADUNAKO UDAL MUGARTEKO BALIABIDE ETA EREMU AIPAGARRIAK

Ebaluatuko den eremu geografikoak nahikoa izan beharko du planean aurreikusitako jarduerak izan litzaketan ondorio guztiei buruz hausnartzeko; hirigintzako jarduketaz gain, arauzko zehaztapenek ingurumenean zer ondorio izan lezaketan ere aztertuko da. Oro har, analisiak Adunako udal mugartea hartuko du barnean, baina baliteke, zenbait alderditan, udal mugarteaz haragoko lurren gaineko ondorioak ere aztertu behar izatea: adibidez, paisaiaren edo baliabide hidrikoen gaineko eragina aztertzeke garaian.

Ingurumen ebaluazioa zehatzagoa izango da eremu jakin batzuetan, antolamendu aukerak inpaktu handiko jarduketak aurreikusten baditu haietan; esate baterako, hirigintzako garapenak planteatu badira.

Ingurumen Administrazioko Zuzendaritza honetan dagoen informazio bibliografikoa eta kartografikoa kontsultatu ondoren, eta beste administrazio batzuetatik jasotako erantzunak kontuan hartu eta gero, ingurumenaren aldetik interes berezia duten baliabide eta eremu hauek identifikatu dira Adunako udal mugartean.

A. **Bertako zuhaitziak eta Batasunaren intereseko habitatak.** Hasierako dokumentu estrategikoaren arabera, udal mugarteko egungo landarediaren % 36,01 baso sailek osatzen dute; haien aldean, baso naturalek % 21,11 hartzen dute. Batasunaren intereseko habitatek udalerrriaren % 19,01 osatzen dute. Haien artean, 6510 *Altitude baxuko sega larreak* dira ugariak (% 14,74), eta atzetik datoz 4030 *Txilardi lehor europarrak* (% 2,16) eta 6210 *Larre lehor erdinaturalak eta sastrakadi fazieak kare substratuaren gainean* lehentasunezko habitata (% 1,18). Gainerakoen azalerak hondarrak dira (% 1etik beherakoak): besteak beste, 91E0 *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* espezieetako baso alubialak lehentasunezko habitata (% 0,84) eta 9260 *Castanea sativa* espezieko basoak, (% 0,09).

Lurzoru urbanizaezinaren antolamenduari dagokionez, aurrerapeneko 2. aukerak, planteatutako hiruetatik osatuena eta zehatzena denak, baso autoktono batzuk babesten ditu, bai eta Tolosaldeko LPPak ezarritako Batasunaren lehentasunezko intereseko habitatak eta interes naturaleko eremuak ere, halakoak *Babes berezia* kategorian sartuta. Gainera, babes gehigarri bat ezartzen zaie Batasunaren intereseko lehentasunezko habitatei, *Batasunaren intereseko habitat* baldintzatzaile gainjarria erabiliz Batasunaren lehentasunezko habitatentzat nahiz halakoak ez direnentzat. Beharrik gabekotzat jotzen da Batasunaren intereseko lehentasunezko habitaten babes bikoitza; izan ere, ez dute habitaten babesa indartzen eta, aldiz, zailagoa bihurtzen dute eremu jakin batean kontuan hartu beharreko erabilera gidalerroen azterketa. Beraz, nahikoa litzateke *Babes berezia* kategorian sartzea baso autoktono guztiak, bai eta Batasunaren lehentasunezko intereseko habitatak ere, eta kentzea formazio horietarako baldintzatzaile gainjarri espezifiko bat zehaztearen babes gehigarria.

Azkenik, aurrerapenak berak markatzen dituen irizpideekin bat etorritik, ahaleginak egingo dira intereseko landaredia babestearren kontserbazio neurri aktiboak ezartzeko, ahal den heinean: adibidez, udalaren lurzoru ondarean sartuz titulartasun pribatuko balio ekologiko handiko basoak, edo lurraldea zaintzeko hitzarmenak eginez, basoak kontserbatzen eta heltzen direla bermatzeko.

Hiri eredurako eta lurzoru okupatzeko estrategiarako proposatutako aukerek ingurumen balioko landaredian eta Batasunaren intereseko habitatean izango duten inpaktuari dagokionez, behin bazterturik 0 aukera, udalerrriaren benetako egoera zintzoki irudikatzen ez duelako, 1. aukera hobesten da ingurumenaren ikuspegitik, lurzoruaren okupazioa murrizten duelako, eta horrek, aldi berean, apur bat murrizten du ingurumen balioko landarediaren eta Batasunaren intereseko habitaten gaineko eragina. Horrela, 1. aukerak ingurumen balioko landarediaren 32,04 ha-ri eragiten dio, Elutse A-ko 32,72 ha-ren eta Elutse B-ko 32,54 ha-ren aldean. Bestalde, Batasunaren intereseko habitaten eraginpeko azalerari dagokionez, 1. aukeran 28 ha dira (1,86 ha 91E0 habitatean, 2,42 ha 6210 habitatean eta 23,72 ha 6510 habitatean), eta 2. aukeran, berriz, handiagoa da 6510 habitataren gaineko eragina 1. aukerarekin alderatuz gero (0,69 ha gehiago Elutse A-n eta 0,5 ha gehiago Elutse B-n).

Nolanahi ere, azkenean lurzoru okupatzeko zer aukera gauzatuko den hautatzean, lehentasuna emango zaio intereseko landaredi autoktonoaren gaineko eragina minimizatzeari. Era berean, beharrezko diren prebentzio eta zuzenketa neurriak ezarri behar dira azkenean lurzoru urbanizagarrietan edo hiri lurzoru berriztatzen buka lezaketen zehaztasun masetarako: esaterako, garapen eremuetako espazio libreetan sartzea, eta behar besteko atzerapenak eta estrategiak definitzea ibaien konektagarritasun ekologikoa berreskuratzeko, baldin eta azkenean inpakturik eragiten bada Oria ibaiarekin mugakide den landaredian.

B. **Naturagune babestuak eta interes naturaleko eremuak.** Adunako udal mugartean interes naturaleko gune bat dago, LAGen barruan sartuta dagoena: Atxulondo Abaloz. *Naturagune babestuak* baldintzatzaile gainjarriaren bidez babesten da.

C. **Fauna.** Geoeuskadi-ren arabera, hegaztien banaketarako bi gune sentikor daude: bat belatz handiari dagokiona (*Falco peregrinus*), udalerrriaren ipar-ekialdean, eta bestea, Adunako



hegoaldean, uhalde enararentzat (*Riparia riparia*). Era berean, ugaztunei dagokienez, *bisoi europarraren lehentasunezko banaketa eremu* bat dago Villabona eta Zizurkil udalerriekiko mugetan eta Bordabe errekan. Azkenik, urlehorrarrei dagokienez, Pirinioetako uhandrearen *lehentasunezko banaketa eremu bat* hauteman da udalerraren hego-ekialdean.

Faunarentzako interes bereziko eremu horiek guztiak babestea proposatzen du HAPOak, *Mehatxatutako espezieak babesteko eremuak* baldintzatzaile gainjarriaren bidez.

HAPOa izapidetzeko prozesuan, xehetasun handiagoz definitu beharko da zer-nolako erabilera murrizketak aplikatu nahi zaizkion baldintzatzaile horri, ukitzen dituen espezieen babesa eta kontserbazioa ziurtatzeko. Hori bereziki garrantzitsua da *bisoi europarraren lehentasunezko banaketa eremuak* babesten dituen baldintzatzaile gainjarriaren kasuan; izan ere, hirigunean Oria ibaiaren alboan dauden garapen industrialeko eremuei lotuta dago haren azaleraren zati handi bat. Ondorioz, behar besteko atzerapenak zehaztu beharko dira, eta erriberako landaredia eta ibaien konektagarritasuna hobetzeko neurriak ezarri, guztia ere ugaztun horren habitata zaintzen, mantentzen edo lehengorutzen dela ziurtatzeko, aurrerapena egiteko proposatutako irizpideek aipatu bezala. Gainera, kontuan izan behar da neurri horiek lagungarriak izango direla ibaien ibilguei lotutako beste espezie bat ere babesteko: hots, uhalde enara.

- D. **Azpiegitura berdea.** Adunako udalerraren hegoaldean Oria ibaia dago, zeina Euskadiko azpiegitura berdearen bilbe urdinaren parte den.

Halaber, aurrerapenean, tokiko igarobide ekologikoen sare bat proposatzen da, Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroen 4. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Sare horrek, Oria ibaiaren ibaiadarren sarea osatzen duten erreka eta ubideen ibilbideari jarraituz, ondo kontserbatutako zuhaitziak eta Atxulondo Abalotz interes naturaleko eremua lotzen ditu, eta, aldi berean, Tolosaldeko LPPan definitutako udalaz gaindiko igarobideen sarearekin lotzen ditu horiek. Bai tokiko igarobideen sare hori, bai Euskadiko azpiegitura berdea, "Igarobide ekologikoak" baldintzatzaile gainjarriaren bitartez babesten dira.

Aurreko igarobideekin batera, iradokitzen da hor sar daitezela Gipuzkoako azpiegitura berdearen sarearen proposamenean mugatutako Funtzionaltasun Ekologikorako Intereseko Guneak (FEIG) ere.

Azkenik, hiri azpiegitura berdeari dagokionez, kontuan hartuko da Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek adierazitakoa: alegia, tokiko azpiegitura berdearen zatitza hartuko direla espazio libreen sistema orokor gisa kalifikatutako espazioak eta, aukeran, baita espazio libreen eta berdeguneen tokiko sistemak ere. Berdeguneen jarraitutasun printzipioak, balio ekologikoa babestekoak eta ekosistema zerbitzuak indartzekoak aplikatuko zaizkie horiei guztiei, eta eraikitako hiri espazio libreen iragazkortasuna sustatuko da.

- E. **Onura publikoko mendiak (OPM).** Adunako udalerrian Onura Publikoko Mendien 235,06 ha daude, eta HAPOak *Onura publikoko mendiak* baldintzatzaile gainjarriaren bidez babesten ditu, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSko Araudiaren 10. artikuluan ezartzen den bezala. HAPOak lehentasunezko helburu gisa ezartzen du eremu horietako baso autoktonoak zaindu eta berreskuratzea. Erabaki hori interesgarritzat jotzen da, eta kontuan hartu beharko da baso kudeaketa planifikatzeko orduan. Nolanahi ere, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren V. kapituluak baldintzatzaile horretarako ezartzen duen araudia hartuko da kontuan.
- F. **Nekazaritzako eta abeltzaintzako lurzoruak.** Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren sailkapenaren arabera, *Basoa* eta *Basoa-Mendi barbana* kategorien barruan daude Adunako udalerriko landa lurzoru gehienak (% 64,57). Hurrengo kategoria Trantsizioko landa paisaia da (% 22,37). *Balio estrategiko handiko* lurzoruei dagokienez, oso ehuneko txikia dute (% 1,76), hau da, 12,37 ha guztira. Adunako herrigunetik gertu edo haren mugaldean daude

gehienak, baita Oria ibaiaren ertzetan jarduera ekonomikoetarako erabiltzen diren lurzoruetan ere. Azkenik, *Ingurumen hobekuntza* kategoriaren barruan, landa lurren % 0,48 dago.

Nekazaritza erabilerarako potentzialtasun handia duten lurzoruak babestearen garrantzia dela medio, eta Nekazaritza eta Basozaintzako LPSa betez, HAPOak berariaz jaso beharko ditu, lurzoru urbanizaezinen kategorizazioan, plan horretan definitutako balio estrategiko handiko eremuei lotutako mugaketa eta araudia. Mugaketa hori, aurrerapeneko lurzoru urbanizaezinen antolamendurako 2. aukerak proposatzen duen bezala, zabaldu ahal izango du udal plangintzak, baina zehatz-mehatz azaldu beharko dira zabaltea justifikatzen duten irizpideak.

Era berean, kontuan hartu beharko dira Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak adierazitako eragozpenak, batetik, HAPOak Nekazaritza eta Basozaintzako LPSko *Basoa* kategoriak ukitutako lurzoruak hainbat kategoriatan zatitzen dituelako (*Babes berezia*, *Ingurumen hobekuntza* eta *Basoa*) eta, bestetik, horrek dagozkion administrazio sektorialak garatutako plangintzan sor lezakeen interferentziaren inguruan.

Orobat, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSan ezarritakoaren arabera erabilera araubideak sartuko dira zehaztutako lurzoru urbanizaezineko kategoria bakoitzean.

Bestalde, Aurrerapenean, jarduera ekonomikoek dagokienez, hala antolamenduko helburu orokorretan nola 1. aukeran jarduera ekonomikoak antolatzen direnean, azaltzen da ez dela gehiago hedatu behar industria sektorea eta lehen sektorea indartu behar dela, balio agrologiko handieneko lurzoruak erabilera desegokiekin ez okupatuz. Hala ere, aldi berean, planteatzen da hiri lurzoru gisa kalifikatzea gaur-gaurkoz urbanizagarri kalifikazioa duten 18 sektoreko lurzoru oraindik garatu gabeak, nahiz eta Oria ibaiaren uholde lautadari lotutako lurzoru horiek balio estrategiko handikoak izan nekazaritzarako. Azalera handia dutela harturik kontuan (13 ha inguru, aurrerapenaren arabera), ezinbestekotzat jotzen da HAPOak modu arrazoituan justifikatzea hura garatzeko beharra, 3. atalak hirigintza plangintza gidatzeko ezartzen dituen jasangarritasun irizpideen arabera. Bestela, desklasifikatu egin beharko litzateke, eta nekazaritza eta abeltzaintzako eta landazabaleko kategorian sartu. Era berean, nahiz eta bizitegi erabileren aukerak aztertzean ez diren hautatzen 2. aukerako Elutse A eta Elutse B garapenak, ez dira argi eta garbi ezesten eta, bi eremu horien urbanizazioak balio agrologiko handiko lurzoruei ere eragingo liekeenez, zehatz-mehatz aztertu beharko litzateke ea beharrezkoa den lurzoru horiei eragitea udalerriko bizitegi premiak betetzeko.

Nolanahi ere, HAPOa izapidetzeko prozesuan, Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSko 10.e artikuluan adierazitakoarekin bat etorritik, nekazaritza sektorearen gaineko eragina ebaluatu beharko da, eta horretarako kontuan hartu beharko dira, bai nekazaritzako lurren okupazioa, bai antolamenduan jasotako proposamenen eraginpean gera litezkeen nekazaritzako ustiatzearen gaineko inpaktua. Ingurumen azterketa estrategikoan bertan egin daiteke ebaluazio hori, Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSak "*Planen aplikazioak eta lan eta jardueren egikaritzak nekazaritza sektoreen gainean izan dezakeen eraginaren ebaluazioa*" dela-eta adierazitakoa harturik oinarri. Ebaluazio horretan oinarrituta, dagozkion prebentzio, zuzenketa eta konpentsazio neurriak zehaztuko dira, beharrezkoa bada.

Azkenik, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikaren Legeak 16. artikulua adierazten duen bezala, kontuan hartu beharko da ezen, administrazioak balio agrologiko handiko lurretan egitekoak dituen proiektu edo jarduketak guztietan, txostena egiteko eskatu beharko zaiola nekazaritzaren arloan eskumenak dituen foru organoari, behin betiko onartu baino lehen.

- G. **Paisaiaren kalitatea.** Hiru ikus arro nagusi daude: Aneibar, Andoain eta Abalotz. Tolosaldeko LPParen barruan, paisaia balio handiko ikus arro gisa kalifikatzen dira. Aurrerapenak dio A19 *Baldintzatzaile gainjarriak* planoan jasota daudela, baina ez da agertzen zuzendaritza honetara bidalitako dokumentazioan. Dena dela, antolamenduaren oinarritzko irizpidetzat hartu behar da paisaiaren kalitatea mantendu eta hobetzea, plangintzaren eskala guztietan:



HAPOaren bidez egiturazko antolamendua egin eta erabilerak esleitzen direnetik hasita, eta garapen plangintzan eta urbanizazio proiektuetan urbanizazio baldintzak ezarri arte. Era berean, eta eskala txikiagoan, iradokitzen da paisaia integrazteko azterlan bat izan dezatela HAPOko hirigintza fitxetan zehaztutako garapen eremuetan ezarriko diren hirigintza jarduketek, 90/2014 Dekretuak, ekainaren 3koak, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzkoak, 7. artikuluan aurreikusten duen bezala.

- H. **Kultura ondarea.** HAPOaren idazketaren ondorengo faseetan, hirigintza dokumentuak barnean hartu beharko du ondare arkeologikoaren eta arkitektonikoaren katalogo bat, baita babes araudi bat ere, Euskal Kultura Ondarearen Zentroak eta GFAko Kultura Zuzendaritzak bidalitako aginduak eta esku hartzeko irizpideak kontuan hartuta. Harekin batera, planoak eta elementu bakoitzaren banakako fitxak aurkeztuko dira, eta honako hauek adieraziko dira fitxa horietan: elementuaren kokapena, deskribapen orokorra, ondare intereseko balioak, argazkiak, babes araubidea eta kontserbazio egoera.

Bestalde, ingurumen azterketa estrategikoak berrikusi eta osatu egin beharko du hasierako dokumentu estrategikoko kultura ondareari buruzko atala, jasotzen duen informazio grafikoa eta idatzizkoa bat etor dadin HAPOko ondare arkeologiko eta arkitektonikoaren katalogoan ezarritakoarekin. Era berean, ondarearen gaineko eraginaren azterketan sakondu beharko du, eragin kaltegarriak ez dela ziurtatzeko. Ildo horretan, eta Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearen 50. artikulua betez, ondarean eragin litezkeen beste inpaktuen artean aztertuko da zer-nolako kutsadura bisuala eragin lezaketen antolamendu aukera desberdinetan proposatutako eraikin berriek babespeko kultura ondasunen gainean, eta dagozkion prebentzio eta zuzenketa neurriak hartuko dira, hala nola proposatutako antolamenduaren zuinketa. Halaber, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoen Zuzendaritzak aurreko kontsultei emandako erantzunetan azaldu bezala, ibilgu publikoetan dauden egituretan kontuan hartuko da ingurumenaren aldagaia eraikuntza horiek azertzean, ondare intereseko elementuen katalogoan sartu behar al diren baloratzeko orduan, oreka egokia lortu dadin horiek kontserbatzearen eta ibai ibilguak hobetzearen artean.

- I. **Jabari publiko hidraulikoa eta haren babes eremuak.** Oria ibaia da udalerriko sare hidrografiko nagusia. Udalerrriaren hegoaldeko mugatik igaro, eta Villabona eta Andoain udalerriekin muga egiten du. Era berean, Oria ibaira isurtzen diren beste lau ibai daude: Zubiaurretxo, Balastrain, Lixerreka eta Ursalto.

Adunako udalerrian ez dago azaleko uren egoera kontrolatzeko estaziorik, eta Andoaingoa da hurbilena, Adunako mugatik gertu. Jarraipen sarearen 2022ko txostenean, Oria VI ur masaren egoera ekologikoa neurrizkoa izan zen 2022an, baina ona 2018-2022 bosturtekoan. Egoera kimikoari dagokionez, estazio horretan ez da egoera ona lortzen, oxigeno eskari kimikoak baldintza horiek ez betetzea eragiten baitu.

Aurrerapenean proposatutako hiri ereduaren aukerek eta okupazio estrategiak hidrologian zer eragin duten azterturik, hiru aukerek eragin bera dute Oria eta Zubiaurretxo ibaietan. Jarduera ekonomikoetarako lurzoruak dituzten eremuetatik gertutik doaz biak.

Bestalde, proposatutako eremuei dagozkien hirigintzako fitxetan, zehaztu beharko da zer atzerapen gorde behar diren eraiki eta urbanizatzeko, EAeko Ibairen eta Erreken Ertzak Antolatzeako LPSko F atalean ezarritakoaren arabera. Halaber, baldintza gisa ezarriko da haien egoera naturala eta lotutako erriberako landaredia babestu eta zaindu behar dela edo, hala badagokio, egoera hori berroneratu.

Azkenik, kontuan hartu beharko da, jarduketek eragina izango badute jabari publiko hidraulikoaren gainean, edo jabari publiko hidraulikoaren babes eremuetan egingo badira, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren nahitaezko baimena izan beharko dutela, URAK izapidetua.



- J. **Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoko eremu babestuak.** Geoeuskadi-ren arabera, eremu babestuen erregistroaren barruan hiri hornidurarako 4 ur bilketa daude –Itube, Maria Azpia eta Ipelarre iturriak eta Ursalto ubidea–, eta 50-2.000 biztanle artean zerbitzatzen dituzten guztiek. Bestalde, Zizurkilekiko mugan bertan, Antzibar Loidi ubidea dago, 2.000 eta 15.000 biztanle artean zerbitzatzen dituenak. Azkenik, hornidurarako ur bilketak dituen Oria VI masa dago.

HAPOaren aurrerapenean jasotako zerrenda aurrekoa baino luzeagoa da; izan ere, erregistratu gabeko hainbat bilketa puntu daudela azaltzen du. *Lurpeko uren babes eremuak* izeneko baldintzatzaile baten bidez babesten ditu bilketa horiek, eta baldintzatzaile horretan sartzen ditu akuiferoen kalteberatasun maila ertaina, handia edo oso handia duten eremuak ere.

Hasierako dokumentu estrategikoko zerrenda osatu gabe dago Geoeuskadi-koaren aldean, Itube iturria eta Antzibar-Loidi ubidea falta baitira. Gainera, ez dator bat HAPOaren aurrerapenean jasotakoarekin. HAPOa izapidetzeko prozesuan, ingurumen azterketa estrategikoa berrikusi egin beharko du HAPOaren bidez babestu nahi diren lurrazaleko bilketei buruzko atala, bertan jasotzen den informazio grafikoa eta idatzizkoa bat etor dadin, bai hirigintza dokumentuan ezarritakoarekin, eta baita Plan Hidrologikoan jasotako datuekin ere.

Bestalde, Plan Hidrologikoaren 16. artikulua aplikatuz, ur bilketa bakoitza babesteko eremu bat ezarriko da. Isuri arroaren gaineko 100 m-ko erradioko arku batek mugatuko du eremu hori ur bilketak 50 eta 2.000 biztanle artean zerbitzatzen baditu, eta 200 metroko arku batek, berriz, 2.000 eta 15.000 biztanle artean zerbitzatzen baditu. Ondorioz, aurrerapenean proposatzen den bezala, lurzoru urbanizaezinen antolamenduan baldintzatzaile gainjarri bat ezarriko da, ur bilketa eta babes eremua barnean dituela, eta bilketa horretako baliabidearen kalitateari eta kantitateari eusten zaiela bermatu beharko du HAPOaren hirigintza araudian baldintzatzaile horri lotutako erabilera araubideak. Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoko eremu babestuetan sartu gabeko beste bilketa batzuetara ere hedatu ahal izango da baldintzatzaile hori.

- K. **Arriskuak.** 105/2008 Dekretuak, ekainaren 3koak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurri buruzkoak, 31.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, udalerriko arrisku naturalen mapa erantsiko zaio ingurumen azterketa estrategikoari. Era berean, zenbait neurri zuzentzaile ezarriko dira ingurumen azterketa estrategikoan, dauden arriskuak murrizteko edo ez handitzeko, eta proposatutako antolamenduak kontuan hartu beharko ditu ingurumen arrisku horiek erabilerak eta jarduerak arautzean.

Adunako udalerriko arrisku nabarmenei dagokienez, honako hauek aipa daitezke:

- ***Uholde arriskua.*** Adunan, Oria ibaiaren eta Zubiaurretxo eta Ursalto ibaiadarren ibilguari lotutako uholde arriskuak identifikatu dira, baita ARPSI ES017-GIP-15 eremua ere, non sartzen baita Zizurkilgo mugatik hurbilen dagoen zonaldea. Uholde arrisku horiek jarduera ekonomikoetarako erabiltzen diren lurzoru batzuei bakarrik eragiten diete.

Hala, 18 B sektoreari dagokionez (non eraikin berriak egin nahi diren), sektorearen % 80 lehentasunezko fluxu eremuan dago, eta haren azaleraren % 90 sartzen da 100 eta 500 urteko errepikatze denborako uholde arriskuko eremuan. Era berean, 12 *Uparan* eremuan dauden bost zabalgunetako hiru 100 eta 500 urteko errepikatze denborako uholde arriskuko eremuan kokatu dira.

Hala ere, URAk kontsultei eman dien erantzunean jakinarazi duenez, gaur egun aribidean da "*Adunako ibarrean Oria ibaiaren ingurumen egokitzapena eta egokitzapen hidraulikoa egiteko proiektua*". Oria ibaiaren egokitzapen hidraulikoa eta ingurumen egokitzapena egiteko proiektu horren obrak gauzatu eta gero, 18 Erribera sektorean urbanizatu nahi diren lurrek ez dute izango uholde arriskurik, azterketa hidraulikoaren aurreikuspenaren



arabera. Era berean, nabarmen murriztuko da 12 Uparan eremuan aurreikusitako zabalguneen uholde arriskua.

Bestalde, bidalitako dokumentazio grafikoa aztertu ondoren, egiaztatu da ez dela lehentasunezko fluxu eremua mugatu, ez ingurumen dokumentu estrategikoaren II09 *Hidrologia eta uholde arriskua* planoan, ez Aurrerapeneko A12 *Arrisku naturalak eta klima aldaketa* planoan. HAPOaren izapidean zuzendu egin beharko da hori.

Aurrerapenak, erabileren antolamendua egitean, *Afektazio hidraulikoko eremuak* izeneko baldintzatzaile gainjarria ezartzen du arrisku horrekin lotuta. Bada, Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoan eta EAeko Kantauri Isurialdeko Ibai eta Erreken Ertzen LPSan ezarritako araudia izan beharko du baldintzatzaile horrek.

Bestalde, Plan Hidrologikoaren 48.1 artikulua betez, hirigintza garapen berriek zoladura eta okupazio iragazgaitzaren kantitatea minimizatu beharko dute, halakoak behar-beharrezkoa duten azaleretan soilik ezarriz, eta drainatze jasangarriko hiri sistemak sartu beharko dituzte, lehengo egoeraren aldean jariatze urak gehiago badira gehikuntza hori konpentsatu ahal dela edo garrantzirik ez duela bermatzeko, eta sortutako jariatze uren tratamendua ere aurreikusi beharko dute. Ildo horretan, HAPOaren araudi orokorrean jasoko da urbanizazio proiektuek nahitaez zehaztu behar dutela zein izango den akabera iragazkorren ehunekoa urbanizatuko den lurzoruko espazio libreetan (gutxienez % 20 espaloietan, eta % 35 plazetan eta hiriko berdeguneetan).

Azkenik, Ibiur presa hautsiko balitz, uholde arriskuaren eremuak barne hartuko luke Adunako udalerrria eta, horrenbestez, hiri plangintzan kontuan hartu beharko dira presa hautsiz gero edo behar bezala funtzionatu ezean sor litezkeen uholde orbanak.

- *Baso suteen arriskua.* Eremu batzuetan baso suteak izateko arriskua handia eta oso handia da. Ondorioz, kontuan hartu beharko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Baso Suteetarako Larrialdiko Plan Bereziaren VI. eta VII. eranskinetan jasotako baldintzatzaileak, sute arriskua duten baso eremuetarako, hiriko eta basoko interfaze eremuetarako eta kanpin instalazioetarako, hurrenez hurren, autobabeseko plangintza nahitaez egin beharri dagokionez. Aurrerapenean *Baso sutearen arriskua* baldintzatzaile gainjarria sartu da arrisku horri lotuta.
- *Arrisku teknologikoa. Salgai arriskutsuen garraioa.* Salgai arriskutsuek bide hauetatik zirkulatzen dute: Madril-Irun trenbidea, udalerrriaren hegoaldean arrisku kartografiatu ertaina duena, eta N-1 errepidea, kartografiatutako hiru arrisku maila dituen (oso altua, ertaina eta baxua), tartearen arabera. Arrisku horretarako baldintzatzaile gainjarri bat ezarri da, dagozkion afekzio bandekin. Bestalde, Gasteiz-Bilbo-Donostia-Frantziako muga abiadura handiko linea berriak udalerrria zeharkatzen duenez hego-ekialdetik iparraldera, nahiz eta hirigunetik urrun, zer arrisku eta hirigintza plangintzan zer eragin dakarren aztertu beharko da hura abian jarri aurretik.

- L. **Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak.** Geoeuskadi-ren arabera, Adunan, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak dituzten 71 lurzati jasotzen ditu kutsatuta egon daitezkeen lurzoruaren inbentarioak; horietatik 16 zabortegiak dira, eta gainerakoak industriarako lurzatiak. Bestalde, hasierako dokumentu estrategikoari erantsitako zerrendan, 52 lurzati baino ez dira agertzen. Beraz, berrikusi beharko da, alde horren arrazoiak zein diren ikusteko, eta legez dokumentu horretan egon behar dutenak sartuko dira.

Era berean, aurrerapeneko *Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak izan dituzten tokiak* baldintzatzaile gainjarrian, zehaztapenen artean sartu beharko da ezen, erabilera aldatzen bada kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak izan dituen edo oraindik dituen lurzoru batean, lurzoruaren kalitatea deklaratu beharko dela, 4/2015 Legeak, ekainaren 25ekoak, lurzoru kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoak, ezarritakoaren arabera.



Era berean, baldintzatzaile horrek ukitutako hirigintza eremu bakoitzeko hirigintza fitxetan, kutsatuta egon litekeen lurzorurik dagoen eta ondoriozko lege betebeharrak zein diren jaso beharko da.

- M. **Zarata.** Adunako udalerrian bi errepideren zarata mailek izan dezakete eragina: N1 eta A15. Udal mugetatik kanpo doaz biak, eta HAPOak nagusiki jarduera ekonomikoetarako bideratzen dituen lurzoruetan dute eragina; hau da, kalitate akustikoko helburu ez hain murriztaileak dituzten lurzoruetan. Gipuzkoako errepideetako zarata mapen 4. faseko memoriaren barruan (2023ko ekaina), Adunako udalerraren fitxa espezifikoak adierazten duenez, kalitate akustikoko helburuak gainditu direla hauteman denean, ez dute eraginik izan kultura, irakaskuntza eta osasun arloko eraikinetan, ez eta herriguneko biztanleen gain ere, baina bai sakabanatutako eraikin batzuetan, gauean, gutxi gorabehera 24 biztanleren gainean (biztanleriaren % 5). HAPOko garapen berrien proposamenetan izango luketen eraginari dagokionez, ez da ikusi kalitate helburuak gainditzen direnik.

Aurrerapenean, *Zonakatze akustikoa* baldintzatzaile gainjarria sartu da, 1367/2007 Errege Dekretuaren 5. artikuluan ezarritakoa aplikatuz. Hala ere, ez da aurkeztu hari lotutako maparik, ez baitaukate, azaldutakoaren arabera, informazio zehatzik estatuaren eta Aldundiaren titulartasuneko azpiegiturek ezarritako zortasun akustikoei buruz. Dena dela, plana idazteko hurrengo faseetan egingo diren kontsulten ondoren informazio gehiago izango dutela espero dute.

- N. **Klima aldaketa.** HAPOak bere egin beharko ditu klima aldaketaren aurka borrokatzeko irizpideak, bai emisioak arintzeko (energia efizientzia, energia berriztagarriak sustatzea, mugikortasun motorizatuaren beharrak murriztea, etab.), bai haren ondorioetara egokitzeko. Bi alderdi horietan irizpideak zehazteko, kontuan hartu ahal izango dira Klima Aldaketaren ondorioak baloratzeko eta Gipuzkoako Hirigintza Plangintzan sartzeko tresnaren dokumentazioan ezarritakoen artetik egokien irizitakoak (<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ingurumena>), tresnak berak ildo horretan onartzen dituen HAPOko antolamendu proposamenak aztertu ondoren, kasu bada. Oro har, eta egokitzapen premiei dagokienez, IHOBek egindako *EAEko udalerriek klima-aldaketaren aurrean duten kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioa azterlanak ibai uholdeek hiri-ingurunean duten inpaktua* nabarmentzen du Adunako klima arrisku nagusi gisa. Ondoren, oso atzetik, *bero boladek gizakion osasunean duten inpaktua* dator.

5.- LURZORU URBANIZAEZINA ANTOLATZEAN KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDIAK

HAPOaren izapidean azkenean garatzen den lurzoru urbanizaezinaren antolamenduak bermatu beharko du baliabide naturalen eta nekazaritzako baliabideen erabilera jasangarria dela, eta babes egokia eman beharko die haien osagai baliotsuenei eta/edo kalteberenei. Udalerriko lurzoru urbanizaezin guztietarako erabilerak eta jarduerak arautuz egin beharko da antolamendu hori, eta Lurralde Antolamenduko Gidalerroetan eta Nekazaritzako eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialean zehaztutako antolamendu kategoriak esleitu beharko dira.

Lurzoru urbanizaezinak kategorizatzeke, eremu bakoitzaren ezaugarrietan, edukieran, eta bertako baliabide naturalen kalteberatasunean eta balioan oinarrituko beharko da. Antolamendu horretan kontuan hartu beharko dira txosten honetako 4. atalean aipatutako alderdiak eta erakundeek Zuzendaritza honek egindako kontsulten izapidean eman dituzten erantzunen edukia. Horrela, lurzoru urbanizaezinaren kategorizazioari dagokionez, eta URAk aurretiazko kontsultei emandako erantzunean ezartzen duen bezala, "*azaleko uren babesa*" kategoria gehituko da, EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko LPSko B.1 ataleko II. puntuari ezartzen den bezala.



Gainera, aurrerapenean jasotako baldintzatzaile gainjarrien proposamen zabala berrikusi, eta egiaztatuko da ea, 4. atalean azaldu den bezala, horietako batzuen kasuan ez dagoen bikoiztasunik lurzoru urbanizaezinen kategorizazioaren bidez emandako babesarekin. Hala bada, kendu egin beharko lirateke, eremu jakin batean errazagoa izan dadin kontuan hartu beharreko erabilera gidalerroen azterketa.

Gainera, lurzoru urbanizaezinean onar daitezkeen jarduerak eta instalazioak kokatzeko eta garatzeko baldintzak finkatu beharko dira, dela HAPOan bertan araupetuz, dela alderdi hori arautzeko ordenantza bereziak eginez eta onartuz. Ildo horretan, kontuan hartuko dira EEE-k kontsulten izapideari emandako erantzunean azaldutako jarraibideak. Horrela, eta udalak ezarritako irizpidea bera betez, eremu egoki batzuk mugatu beharko lirateke energia berriztagarrien ekoizpenerako instalazioak ezartzeko, eta haiek sortutako energia elektrikoa biltegitartzeko instalazioak ere ezartzeko, eta zehaztu beharko litzateke zer araubidetan ezarriko diren erabilera horiek lurzoru kategoria bakoitzean, halako moldez non halakoak lehendik dauden eraikinetan ezartzea sustatuko den edo, bigarren aukera gisa, lurzorian, eta betiere lurzoru urbanizaezinean garatutako beste erabilerekin bateratuz.

Besteak beste, alderdi hauek garatuko ditu HAPOko araudiak: hondakin urak egoki biltzea eta tratatzea, degradatutako obra eta eremuen paisaia lehengoratzea, pistak irekitzea, egiturak paisaian txertatzea, heskaiak kontserbatzea, eta landa eta natura eremuko ingurumena hobetzeko beharrezkotzat jotzen diren beste alderdi batzuk.

6.- HIRI LURZORUA ETA LURZORU URBANIZAGARRIA ANTOLATZEAN KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDIAK

Txosten honen 3. atalean aipatutako helburuekin eta irizpideekin bat etorriz, hiriguneak antolatzean eta sektore urbanizagarri berriak mugatzean eta antolatzean, halakorik egiten bada, kontuan hartuko dira gomendio hauek:

- A. HAPOan aurreikusitako hirigintza jarduketak aurrera eramateko, proportziozkotasun irizpideei jarraituko zaie, eta unean-unean bizitegi erabileretarako eta jarduera ekonomikoetarako egiaz dauden beharretara egokituko dira lanak, lurzoru gehiegi erabili gabe eta bigarren etxebizitza sustatu gabe.
- B. Eraikinen jasangarritasuna eta bizitegi eremuen ingurumen kalitatea bermatuko dira, helburu hauek lortzeko irizpideak eta baldintzak sartuz, dela hirigintzako araudiaren bitartez, dela HAPOko hirigintza fitxetako antolamendu xehatuan:
 - Eraikinak saneamendu sistema publikoetan sartzera behartzea, tratamendu soluzio indibidualak eta jabari publiko hidraulikora isurtzeko puntu berriak saihestuz. Ildo horretan, Plan Hidrologikoaren berrikuspeneko araudiaren 52.1 artikuluan xedatutakoa betez, Adunako Uraldeko HUAN amaitzen den saneamendu sare orokorrari lotuko zaio hirigintza garapen berrien saneamendua.
 - Hiriguneak eta gunen urbanizagarriak arrisku naturalen pean ez egotea. Horrela, zehazki uholde arriskuei dagokienez, indarrean dagoen Plan Hidrologikoaren araudiaren 37.etik 45.era bitarteko artikuluetan xedatutakoa aplikatu beharko da.
 - 213/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, Euskal Autonomia Erkidegoko hots kutsadurari buruzkoak, zaratari dagokionez ezarritako kalitate akustikoko helburuak betetzea.
 - 4/2019 Legeak, otsailaren 21ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoak, ezarritako helburuak, irizpideak eta zehaztapenak betetzea. Horrela, eta EEE-k kontsulten erantzunean proposatzen duen bezala, energia berriztagarrien instalazioak beste erabilera mota batzuekin bateragarriak izan daitezela

bultzatuko da (hala nola lur gaineko aparkalekuekin); lurzoruan aprobetxamendu berriztagarriko instalazioak ezartzea erraztuko da, sorkuntza banatuari lotuta; eta beroa aprobetxatzeko sare kolektiboak gehitzea erraztuko da, garapen berriko eremuetan eta hiria eraberritu eta berroneratzen den eremuetan geotermia edo biomasa instalazioak ezarriz. Era berean, lege horren 7.5 artikulua betez, hiri inguruneetan erabilera publikoko ibilgailu elektrikoak kargatzeko estazioak eta bizikletak errazago erabili eta aparkatzeko espazioak aurreikusiko dira.

- Eraikin eta azpiegitura berriak bisualki eta estetikoki integratzea, Adunako udalerriko paisaiaren kalitatea zaintzeko eta bertako kultura ondareari ez eragiteko.

C. Eremu eta sektore bakoitzeko hirigintza arau berezietan, zerrenda batean jasoko da zer ingurumen baldintza onartu beharko diren, nahitaez, antolamendu xehatua eta urbanizatzeko proiektuak egitean. Besteak beste, barnean hartuko dira hirigintza lanetan aplikatu behar diren neurri babesgarriak eta zuzentzaileak, baita, hala badagokio, urbanizatzeko gastu gisa onartu beharreko konpentsazio neurriak ere.

7.- INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN EDUKIA ETA IRISMENA

HAPoa osatuko duten ataletako bat izango da Adunako Udalak egin beharreko ingurumen azterketa estrategikoa, eta bertan identifikatuko, deskribatuko eta ebaluatuko da zer ondorio esanguratsu eragingo lirartekeen ingurumenean, baldin eta plana eta zentzuzko aukerak (hau da, teknikaren eta ingurumenaren arloan bideragarriak direnak) aplikatzen badira, horrek ingurumenean izan ditzakeen ondorio kaltegarriak prebenitzeko eta minimizatzeko eta ingurumenaren eta jasangarritasunaren aldeko ekintzak planteatzeko.

Ingurumen azterketa estrategikoak barnean hartu beharko ditu, gutxienez, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia eta 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, plan eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duenak, II. eranskinean ingurumen jasangarritasuneko txostenei buruz jasotako edukia.

Eranskin horietan zehaztutako atalak garatzean, txosten honetan adierazitako alderdiei ez ezik, administrazioek, erakundeek eta interesdunek alegazioetan adierazitako ingurumen arazoei ere heldu beharko zaie, eta jarraian adieraziko diren hauek ere jorratu beharko dira:

7.1 Plan edo programaren edukia eta helburu nagusiak, labor azalduta, eta beste plan eta programa batzuekiko lotura.

Ingurumen azterketa estrategikoan, labor-labor aurkeztu beharko da HAPOaren edukia (edo hartara igorri beharko da), eta bertan deskribatuko dira aurrekariak, helburuak eta aurreikusitako jarduketak eta zehaztapenak, kontuan hartutako gainerako hautabideekin batera. Horrekin batera azalduko da nola planifikatuko diren jarduketak, denboraren aldetik, eta zer garapen tresna aurreikusten diren planean mugatutako eremuen plangintza xehatua egiteko.

Bestalde, aztertu beharko da zer lotura dituen HAPOak, bai hirigintzako antolamenduko beste tresna batzuekin, bai HAPOarekin lotura izan dezaketen lurralde planekin eta plan sektorialekin. Gutxienez hauek hartu beharko dira kontuan:

- EAEko Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroak (LAG).
- Tolosaldeko Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala (Tolosaldea).
- Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala.



- EAEko Nekazaritzako eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala (Kantauriko isurialdea), eta haren 1. aldaketa.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2022-2027).
- 197/2023 Errege Dekretua, martxoaren 21ekoa, besteak beste, Kantauri Ekialdeko demarkazio hidrografikoaren Espainiako zatiaren uholde arriskua kudeatzeko planaren berrikuspena eta eguneraketa onartzen duena.
- Euskadiko Ingurumeneko Esparru Programa 2030.
- Gipuzkoako Jasangarritasun Energetikoaren Estrategia 2050 eta Euskadiko Energia Estrategia 2030.
- Klima Aldaketaren aurkako Borrokarako EAEko eta Gipuzkoako Estrategiak.

HAPOko helburu eta jarduketak eta eremu hori ukitzen duten plan eta programetako helburu eta zehaztapenak bat datozen eta erlaziorik duten begiratuko da. Helburu komunak lortzea izango da xedea, eta horrez gain, HAPOko jarduketa aukerak ebaluatzea, baldin eta gainjartzerik, gatazkarik edo bateraezintasunik bada go bestea plan batzuetako helburuekiko eta jarduketa ildoekiko. Orobat identifikatuko dira bigarren mailako ondorioak, ondorio metakorrak, eta ukitutako eremuan ezarriko diren beste planekiko sinergiazkoak. Halako ondorioak identifikatzen bada, planaren inpaktuak zehazteko eta aztertzeke atalean ebaluatuko dira.

7.2 Nazioarteko, Europar Batasuneko, estatuko, autonomiako, foruko eta tokiko esparruetan ingurumena babesteko finkatutako helburuak, eta plana egitean horiek kontuan hartzeko moduari buruzko justifikazioa.

Ingurumen ebaluazio estrategikoak azaldu beharko du nola txertatu diren udal antolamenduan irismeneko dokumentu honetako 3. atalak ingurumen babesaren eta jasangarritasunaren inguruan adierazitako irizpideak, edo HAPOa formulatzean ezarritako beste batzuk, eta, ahal den guztietan, ezarritako edo proposatutako adierazleak eta mugak erabiliko ditu.

7.3 Adunako udalerrriaren ingurumena eta haren bilakaera ezaugarritzea, klima aldaketa kontuan harturik.

Aurkeztutako hasierako dokumentu estrategikoak jadanik azaltzen duen informazioan oinarrituta, eta irismeneko dokumentu honetako 4. atalean ezarritako irizpideak kontuan harturik, Adunako udalerrriaren ingurumen ezaugarriak deskribatu beharko dira ingurumen azterketa estrategikoan, eta egun duen egoeraren diagnostiko osoa ere egin beharko da. Horretarako, dagozkion azterketa bereziak egingo dira, zer informazio iturri eta bibliografia kontsultatu diren, zer landa lan egin den eta zer metodologia erabili diren adierazita.

Diagnostikoan, natura-, nekazaritza-, ondare- eta paisaia-baliabideak zer egoeratan dauden eta hiri-, industria- eta landa-guneetako ingurumenaren kalitatea nolakoa den deskribatuko da, eta bereziki babestu edo zaindu behar diren elementuak eta/edo baliabideak zein diren identifikatuko da.

Atal horretan, gainera, udalerrriak ingurumenaren arloan dituen presio eta arazo nagusiak aztertuko dira, arazo horiek HAPOan zer eragin izango duten edo planak arazo horiek larrituko dituen begiratzeko.

Deskribapenean ez dira ingurune fisikoaren ezaugarriak soilik adieraziko. Planean ezarritako antolamenduaren ondorioz nabarmen alda daitekeen alderdirik edo aldagairik bada hiriko



metabolismoan, horren berri eman beharko da: adibidez, uraren horniketa eta saneamendu sistemak, mugikortasun sistema (garraio publikoa/pribatua, motorduna/motorgabea), zarata mailak, energia kontsumoa, eta abar aldatzen badira. Zehazki, eta indarrean dagoen legedia betez, gutxienez azterketa hauek hartu beharko dira barnean:

- **Ur baliabideen eskaria.** Uraren Legearen testu bateginaren 25.4 artikuluan aipatzen den Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren nahitaezko txostena egin ahal izateko, HAPOaren zehaztapenek dakarten ur baliabideen eskariari buruzko azterlan bat sartuko da, eta, hala badagokio, baliabide horiek babesten dituzten administrazio emakidak edo ur eskubideak adieraziko dira. Hautemandako ur bilketetarako, sarera bideratutako emariak babesten dituzten emakiden edo ur eskubideen zerrenda jaso beharko da. Ur baliabideen beharrak zenbatestean, artikulua hauetan ezarritakoa hartuko da kontuan: *Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoaren arau xedapenetako* 14. eta 15. artikulua eta 1. eranskineko 6. gehigarria (Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Espainiako zatiaren Plan Hidrologikoaren Berrikuspena, 35/2023 Errege Dekretuaren bidez onartua). Era berean, HAPOaren dokumentazioan, erakunde kudeatzailearen adostasun txostena sartu beharko da, sistemek behar berriei zerbitzua emateko gaitasuna dutela justifikatzen duena.
- **Zarata.** 213/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, Euskal Autonomia Erkidegoko hots kutsadurari buruzkoak, 23. artikuluan ezartzen duena betez, HAPOko eremuaren zonakatze akustikoa egingo da, dekretu horren 20. artikuluan eta III. eranskinean zehaztutako eremu akustikoak aintzat hartuz, eta zonakatze hori erakusten duen plano bat gehitu beharko da hirigintzako dokumentuetan. Dena dela, HAPOak xeheki antolatutako sektore edo eremuetan etorkizuneko hirigintza garapenak aurreikusten badira, inpaktu akustikoaren azterketa bat egin beharko zaie, urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak 37. artikuluan xedatutakoaren arabera. Azkenik, kontuan hartu behar da Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearen 50. artikuluan ezarritakoa, eta, ondorioz, aztertuko da ea badagoen kutsadura akustikorik babespeko kultura ondasunetan eragin lezakeenik, eta beharrezko diren neurri zuzentzaile eta babesgarriak hartuko dira.
- **Jasangarritasun energetikoa.** Jasangarritasun energetikoaren azterketa bat ere jasoko da, 4/2019 Legeak, otsailaren 21ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoak, 7. artikuluan ezarritakoa betez, eta lege horretako 7.3 artikuluan adierazitako alderdiak hartu beharko ditu barnean.

Udalerrriaren egungo ingurumen egoera diagnostikatu ondoren, zer-nolako bilakaera izango duen aurreikusiko da; horretarako, kontuan hartuko dira ingurumenean eragina izan dezaketen joera sozioekonomikoak eta espero den klima aldaketa. Azken alderdi horri dagokionez, komeni da udalerrian klima aldaketarekin lotuta dauden inpaktu gertagarrienak identifikatzea, eta hartara egokitzeko lehentasunezko jarduera eremuak zein diren zehaztea.

Adunako ingurumen ezaugarri orokorrak deskribatu ondoren, xehetasun handiagoz ezaugarrituko dira HAPOaren arabera jarduketa garrantzitsuenak edo bortitzenak hartuko dituzten eremu edo kokalekuak; adibidez, hiri garapenak egitea aurreikusi diren eremuak.

Azkenik, 105/2008 Dekretuak, ekainaren 3koak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoak, 31.1 artikuluan gai horri buruz zehazten duena betez, aztertu beharko da zer-nolako ahalmena duten lurzoruek aurreikuspen horiek hartzeko, beste alderdi batzuen artean hauek kontuan harturik: uraren arloko administrazio eskudunak jabari publiko hidraulikoa babesteari buruz prestatutako informazioa; Gipuzkoako Ur Kontsortzioak horniketa eta saneamendu sareari buruz emandako informazioa eta eskari berriak asetzeko adina baliabide hidrikorik eta hondakin uren isuri berriak tratatzeko gaitasunik dagoen azaltzeko emandakoa; errepideen eta

lehendik dauden beste azpiegituren arloan eskumenak dituzten administrazioen txostena, planean jasotako aurreikuspenek izan dezaketen eraginari buruzkoa; eta abar.

Atal horren oinarri gisa, azkenean landutako alderdi guztiei buruzko kartografia tematikoa erantsi beharko da.

7.4 Aukerak hautatzeko prozesuaren laburpen arrazoitua. Hautatutako konponbidearen justifikazioa.

Ingumen azterketa estrategikoan, ingurumen azterketa egin behar zaie HAPOaren helburuak lortzeko teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak diren aukerei. Aztertutako aukera bakoitzaren ingurumen inpaktuak ebaluatuko dira, eta planaren helburuak eta, bereziki, ingurumen helburuak zenbateraino betetzen dituen erabakiko da.

Beraz, aztergai den eremuko ingurumenaren elementuak eta arazoak eta ingurumena babesteko helburuak identifikatu ondoren, teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren aldetik bideragarriak diren zenbait aukera proposatu beharko dira HAPOa garatzeko eta jasotzen dituen helburuak betetzeko, eta haien artean sartu beharko da, nahitaez, «0 aukera» edo esku hartzerik gabekoa; hau da, udalerrriaren egiturazko antolamendua ez aldatzea. Ahal dela, hirigintzako jarduketan delinearazio edo diseinu aukerak ez ezik, non gauzatu litezkeen ere konparatuko da.

Aurrerapenaren atarikoan jasotako planteamenduak kontuan harturik, aukeren azterketak analisi xehatu hauek hartu beharko ditu barnean:

- **Bizitegi garapen berriak kokatzeko aukerak.** Lehenik eta behin, zehaztu beharko da zenbat etxebizitza beharko dituen udalerriak HAPOaren indarraldian, eta egindako zenbaketa justifikatu beharko da, parametro sozial, demografiko eta ingurumeneoetan oinarrituta, Lurraldearen Antolamenduko Gidalerroek zenbaketa horri dagokionez ezarritako mugen barruan betiere. Bizitegi ahalmena zehaztu ondoren, bizitegiak kokatzeko eta banatzeko zenbait aukera analizatuko dira, sakonago aztertzea erabaki direnak. Analisi horrek kontuan hartu beharko du zer inpaktu izango duen ingurumenean aztertutako etxebizitzaren kokapen eta tipologia aukera bakoitzak eta, hala, bazter utzi ahal izango dira ingurumeneko elementu baliotsuetan, hala nola balio agrológico handiko lurzoruetan edo nekazaritzako ustiapenei lotutakoetan, inpaktu nabarmenak eragiten dituztenak, edo, uholde arriskua tarteko, pertsoneri edo ondasunei kalte egiteko arriskua handitzen dutenak.
- **Jarduera ekonomikoetarako, espazio libreetarako eta ekipamenduetarako lurzoru aukerak.** Udalerrian jarduera ekonomikoetarako, espazio libreetarako eta ekipamenduetarako zenbat lurzoru behar den zehaztu beharko du analisiak. Behar horiek ezarri ondoren, analizatu egingo dira jarduera ekonomikoak, espazio libreak eta ekipamenduak kokatzeko eta banatzeko dauden aukerak, azkenean sakonago aztertzea erabaki direnak. Jasangarritasun irizpideei jarraikiz egingo da beti analisi hori, eta bazter utziko dira ingurumeneko elementu baliotsuetan (adibidez, balio estrategiko handiko nekazaritzako lurzoruetan) inpaktu nabarmenak eragiten dituztenak, edo, uholde arriskua tarteko, pertsoneri edo ondasunei kalte egiteko arriskua handitzen dutenak.

Aukerak aztertzean, lehentasuna izan beharko du, HAPOaren aurrerapenak proposatu duen bezala, jada urbanizatuta dauden eremuak finkatzea eta berritzea hautemandako beharrak betetzeko, lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako eremuak edo urbanizatu gabe daudenak garatu ordez.

Halaber, aukerak aztertzean, proposatutako hirigintza eremuetako erabileren barne banaketari erreparatuko zaio:



- Kontuan hartuko dira ingurumen arriskuak: adibidez, uholde arriskurik edo kutsatuta egon daitezkeen lurzorurik dagoen. Alde horretatik, kontuan hartuko da URAk aurretiazko kontsultei emandako erantzunaren edukia. Horrela, URAk gogorarazi du Plan Partzialaren Aldaketa Puntualak 18B Erribera sektorerako aurreikusitako garapena egiteko ezinbesteko baldintza dela alde aurretik eginak egotea "*Adunako ibarrean Ori ibaiaren ingurumen egokitzapena eta egokitzapen hidraulikoa egiteko proiektuaren*" lanak, eta egiaztatuta egon behar dela ondoriozko uholde arriskua. Era berean, eta 12 Uparan eremuan aurreikusitako zabalguneei dagokienez, proiektu horretako jarduketak gauzatu arte eta ondoriozko uholde arriskua egiaztatu arte, egungo egoera erabili beharko da erreferentzia gisa Plan Hidrologikoaren araudian ezarritako uholde eremuetako lurzoruaren erabilera mugak betetzeko orduan.
- Balio agrologiko handiko edo nekazaritzako ustiapenei lotutako lurzoruaren gaineko eragina murriztu beharko da, baita Batasunaren intereseko habitat eta landaredien gainekoa ere, eta jabari publiko hidraulikoa eta haren babes eremuak lehengoratzea sustatu behar da.

Nolanahi ere, aukeren analisiak argi azaldu beharko du zer metodologia erabili den, eta, egin beharko den irizpide anitzeko analisi horretan, zenbateraino hartu diren kontuan ingurumen faktoreak eta faktore tekniko, funtzional eta ekonomikoak. Aztertutako alderdi bakoitzean, azkenean hautatutako aukera ez badator bat ingurumenaren aldetik balorazio hoberena duenarekin, aukera hori zergatik egin den azaldu beharko da.

Proposatutako aukeren kokapena eta ezaugarriak jasotzen dituzten agiri kartografikoak erantsiko dira.

7.5 HAPOaren zehaztapenek eta jarduketek ingurumenean izango duten eragin nabarmenak identifikatzea eta aztertzea.

HAPOan aurreikusitako jarduketek inguruko elementuetan zer eragin izango duten identifikatu eta aztertuko da. Bestek beste, elementu hauek hartuko dira barnean:

- Batasunaren intereseko habitatak.
- Nekazaritzarako balio estrategiko handiko lurzoruak eta funtzionamenduan dauden nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak.
- Uren araudiaren arabera babestutako ur masak eta eremuak.
- Paisaia.
- Hirigunearen kalitatea, zarataren, trafikoaren eta gisako alderdiei dagokienez.
- Giza osasuna.
- Monumentu eta arkeologia ondarea.

Gainera, zenbatetsi beharko da zenbateraino eragingo duten HAPOko planteamenduek:

- Mugikortasun eskarian.
- Uraren, energiaren eta antzeko baliabideen kontsumoan.
- Hondakin uren isurketan eta hondakinen sorkuntzan.



Inpaktuak aztertzean, ondorio guztiak hartu beharko dira barnean: bigarren mailakoak, metakorrek, sinergikoak, epe labur, ertain nahiz luzerakoak, iraunkorrak nahiz aldi baterakoak, onuragarriak nahiz kaltegarriak.

Gainera, ez dira aztertuko antolatutako eremuaren eraldaketa fisikoak zuzenean eragindako inpaktuak bakarrik: proposatutako antolamenduak edo erabilera eta jardueren araubideak zeharka sortutako ingurumen inpaktuak ere hartuko dira kontuan.

Hautemandako inpaktuen adierazgarritasuna zehazteko, arau hauetan ezarritakoari jarraitzen saiatu behar da: 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen ebaluazioarena (III. eranskina) eta 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, plan eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena (III. eranskina).

Identifikatutako inpaktu bakoitzaren magnitudea eta intentsitatea ezaugarrituko eta balioetsiko da, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, VI. eranskineko 8. atalean adierazitako terminologiaren arabera. Horretarako, aurrez zehaztuko dira inpaktuaren eragina egoki deskribatuko duten adierazleak (adierazgarriak, nabarmenak, baztertzailleak, zenbakarriak eta identifikatzeko errazak), eta inpaktuaren gutxieneko muga onargarriak finkatuko dituzten ingurumen kalitateko helburuak, indarrean dagoen legeria eta, kasuan-kasuan, eskumena duten organoetako gidalerroak harturik erreferentzia gisa.

Era berean, balorazio horrek ezarriko ditu, hala badagokio, zein jarduketa ez diren bateragarriak lurraldearen, hirigintzaren eta ingurumenaren arloan indarrean den plangintzarekin, edo zeinek sortzen dituzten ingurumen inpaktu larriak edo onartezinak. Bietan ala bietan, hala izanez gero, aldatu edo ezabatu egingo dira jarduketa horiek.

Azkenik, inpaktuen ebaluazioa ondorengo beste fase batzuetara atzeratzen bada, egokiagoa delakoan, horren zergatia arrazoituko da.

7.6 Ingurumen integrazioko neurriak.

HAPOn aurreikusitako jarduketek ingurumenean inpaktu adierazgarriak izango dituztela erabaki bada, ingurumen txosten estrategikoak zenbait neurri zehaztuko ditu horietako bakoitza prebenitzeko, murrizteko eta, ahal den heinean, arintzeko.

Era berean, HAPOn ingurumen alderdiak txertatzen badira, ez dira balizko inpaktu bati erantzuteko neurriak soilik ezarri behar: komeni da horiek beste neurri batzuekin osatzea, udalerriko ingurumen arazoak konpontzen eta ingurumenaren kalitatea hobetzen lagundu dezaten.

Hori horrela, honelako neurriak ezarriz eraman beharko da aurrera Adunako HAPOk ingurumen integrazioa:

- Lurralde plangintza eta hiriaren diseinua egitean, ingurumen alderdiak kontuan hartu eta jasotzekoak, arazoak edo inpaktuak prebenitzeko edo aurrez zeudenak zuzentzeko. Ez da berariazko aurrekonturik behar izaten. Besteak beste, adibide hauek jar daitezke: balio naturalen babes egokia bermatuko duen antolamendu bat zehaztea lurzoru urbanizaezinerako; inpaktua eragin dezaketen jarduerak arautzeko ordenantzak ematea; kalteberak ez diren kokalekuak bilatzea garapen berrietarako; portaera energetikoa hobetzeko eta eguzki argia gehiago aprobetxatzeko orientatzea eraikinak; eta abar.
- HAPOaren zehaztapenak garatuko dituzten plan eta proiektuen ingurumen inpaktu kaltegarriak prebenitu eta zuzentzekoak; horien artean, klima aldaketaren gaineko eragina arintzeko eta hartara egokitu ahal izateko neurriak. Neurri horiek exekuzio proiektuen

osagaitzat hartuko dira, eta, beraz, aurrekontuetan jaso beharko dira. Haietako asko garapen planarekin edo proiektuarekin batera zehaztu beharko dira, baina, nolahi ere, HAPOan identifikatu beharko dira, eta haien gutxieneko ezaugarriak zehazteaz gain, garapen plan eta proiektuetan nahitaez jaso behar direla adierazi beharko da.

- Azkenean egiaz kapital naturala galarazten bada, galerak konpentsatzekoak, halabeharrezkoak izan direla ebaluatu bada. Antolamendurako tresnan, hauek zehaztu behar dira:
 - Non konpentsatuko diren, eta, horretarako, lehenetasunak zehazteko azterlan bat egin beharko da aurretik, berreskuratzea komeni den eremu degradatuak, bertako igarobideen sarea eta egon litezkeen abaguneak harturik oinarri.
 - Konpentsatzeko jarduketak hartuko dituzten lurren lorpena sailkatuko den lurzoruari lotuta geratu beharko da, esaterako, atxikitako sistema orokor baten bitartez edo zuzkidura publikoak lortzeko jarduketa baten bidez.
 - Konpentsatzeko neurrien gastua sektore berria urbanizatzeko gastuen barruan sartu behar da.
 - Konpentsatzeko neurriak eraikuntza lizentziak eman aurretik gauzatu beharko dira.
- Udalerriko ingurumena hobetzeko jarduketak, gune edo eremu jakin batzuen lehengoratzeko ekologiko eta/edo paisajistikoa edo ingurumenaren kalitatea hobetzea helburu dutenak. Horretarako, komeni da HAPOan lehenetasun hurrenkera bat identifikatzea eta zehaztea lehengoratuko diren kokapenentzat edo ingurumen egoera hobetzeko egingo diren jarduketentzat.

Ingurumen integratzioko neurriak HAPOko hirigintzako dokumentazioan jaso beharko dira, eta zer kostu ekonomiko duten zenbatetsi, nola finantzatuko diren zehaztu –udal aurrekontuen kontura, dirulaguntzen bidez, beste erakunde batzuekin hitzarmenak eginez–, eta zer denboran egikaritutako diren planifikatu beharko da. Azkenean, garapeneko planetan eta proiektuetan kontuan hartu beharreko neurriak zehaztuko dira.

7.7 Planak ingurumenean dituen eraginak zaintzeko programa.

Ingurumen azterketa estrategikoak barnean hartu beharko du HAPOak ingurumenean dituen eraginak zaintzeko programa bat, identifikatutako inpaktu nabarmen bakoitzaren jarraipena egiteko; neurri babesgarriak, zuzentzaileak eta konpentsatzaileak betetzen diren eta eraginkorrak diren egiaztatze; eta HAPOan zehaztutako ingurumen helburuak lortzen diren begiratu ahal izateko.

Ildo horretan, programak honako hauei buruzko informazioa jaso beharko du, aldi-aldi:

- Proposatutako ingurumen helburuak zenbateraino betetzen diren.
- Plana abian jarrita ingurumenari zenbaterainoko kalteak egin zaizkion.
- Prebentziozko, zuzentzeko eta, halakorik bada, konpentsatzeko neurriak aplikatu den, eraginkorrak diren, eta plana garatzen duten hurrengo dokumentuetan eta exekuzio proiektuetan sartu diren.
- Ingurune jakin bateko elementuei kalte egin dien ingurumen efekturik agertu den ustekabea, eta hala bada, zein diren.



- Sektoreko erakunde edo administrazio eskudunek (urak, hondakina, zarata, kutsatuta egon daitezkeen lurzorua, errepideak, sailkatutako jarduerak, eta abar) dagozkion baimenetan eta udal baimenetan ezarritako ingurumen baldintzatzaileak betetzen diren.

Helburu horretarako, zaintza programak adierazi beharko du:

- Zer sistemari, alderdiri edo ingurumen aldagairi egin beharko zaien jarraipena.
- Jarraipenerako eta kontrolerako zer jarduketa egingo diren, dagokien metodologia (datuak biltzeko estrategiak, aldizkakotasuna, eta abar) eta kronograma ere zehaztuta.
- Jarraipenerako zer adierazle erabiliko diren, haien unitateak eta muga eta/edo erreferentzia mailak ere zehaztuta. Dokumentu honetako 8. atalean iradokitako adierazleak edo egokitutako jotako beste batzuk erabili ahal izango dira.
- Zer pertsona eta/edo erakunde arduratuko diren ingurumenaren jarraipena egiteaz.
- Zer eduki jaso behar den egin beharreko txostenetan, eta zenbatean behin egin behar diren.
- Aurreikusitako aurrekontua.

7.8 Laborpen ez teknikoa.

Ingurumen azterketa estrategikoan emandako informazioaren laborpen ez teknikoa idatzi beharko da, eta labor eta irakurle guztiek ulertzeko moduan eman beharko da informazioa.

Laborpen horretan, gutxienez, hauek azalduko dira: HAPOa egitean zer helburu lortu nahi ziren, orokorrean eta ingurumenaren aldetik; zer aukera hartu diren kontuan; zer ondorio eragiten dituen haietako bakoitzak ingurumenean, labor-labor; eta zergatik egin den, azkenean, hautatutako konponbide(ar)en alde.

Laborpena osatzeko, zer neurri zuzentzaile diseinatu diren eta herritarrek eta erakundeek parte hartzeko prozesuan zer ondorio atera diren deskribatuko da.

Halaber, alderdi nabarmengarrienen dokumentazio grafikoa erantsiko da.

7.9 Aukeren eta neurri prebentibo, zuzentzaile eta konpentsatzaileen bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena.

Gutxi gorabeherako analisi ekonomiko bat gehituko da aukeren azterketan, kostuak eta onurak aztertzeko eta analisi ekonomiko eta finantzarioa egiteko, eta barnean hartuko da, ahal den heinean, ingurumenaren eta gizartearen alorreko kanpo kostuen azterketa.

Atal honetan, halaber, HAPOa ezarrita eragin litezkeen ondorio kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko edo arintzeko neurrien kostua zenbatetsiko da, eta/edo aurrekontu banakatua jasoko da, haren ondoriozko ingurumen kostuak barnean hartzen direla bermatzeko. Horrez gain, neurri horiek finantzatzeko iturriak ere zehaztuko dira, Adunako udal aurrekontuen kontura egingo direnak eta, halakorik bada, hirigintzako proiektuen edo jarduketan sustatzaileek hartu beharko dituztenak bereizita.

8.- INGURUMEN EBALUAZIOA ETA ZAINZA PROGRAMA EGITEKO KONTUAN HARTU BEHARREKO ADIERAZLE KUANTITATIBOEN ETA/EDO KUALITATIBOEN PROPOSAMENA

Aukeren ingurumen ebaluazioa eta zaintza programa egiteko aukeratu diren adierazleek hainbat aldagai izango dituzte, egiaztatu ahal izateko zenbateraino bete diren, batetik, HAPOak



zehaztutako ingurumen helburuak, eta, bestetik, hura garatzean ingurumenaren gainean aurreikusi diren ondorioak; hala, neurri zuzentzaile gehigarriak ezarri ahal izango dira ingurumen helburuak betetzen ez badira edo alderdi horretan aldaketarik bada.

Ingurumen adierazleak:

- Finkatutako helburu eta irizpideekin lotura izan behar dute, egiaz kudeaketa tresna gisa funtzionatu ahal izan dezaten, HAPOa formulatzeko eta aplikatzeko esku hartzen duten eragileen erantzukizunak ezartzeko.
- Neurgarriak izan, eta denbora sailetan aztertu ahal izan behar dira. Denboran zeharko aldakortasuna islatu behar dute, joera kaltegarriak prebenitzeko edo zuzentzeko aztertu ahal izan daitezten.
- Kopuru murriztua izan behar dute, tartean dauden eragile guztiek ulertu ahal izan ditzaten. Horretarako, sinpleak eta interpretatzeko errazak izan behar dute.
- Eskura egon behar dute, horiek lortzeko informazio iturri ugarietara jo beharrik gabe.

Adunako udalerrriaren ezaugarriak eta aurrerapenean eta hasierako dokumentu estrategikoan jasotako planteamenduak kontuan hartuta, adierazle erabilgarriak izan litezke elementu hauek baloratzekoak: lurzorua kontsumoa (zer azalera ehuneko dagoen artifizializatuta, azalera osotik), udal mugartean balio estrategiko handia duten lurzoruen ehunekoa, Batasunaren intereseko habitatek eta intereseko landarediak okupatutako azaleraren ehunekoa, etab. Era berean, kontuan hartuko da *ingurumen helburuen adierazleak eta jasangarritasun printzipioak* sartzeko aukera, Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzak proposatu bezala, egindako kontsulta izapideari erantzutean.

9.- INFORMAZIO ETA KONTSULTA MODALITATEAK

HAPOko funtsezko prozeduran aurreikusitako izapideen barruan, jarduketa hauek egingo ditu Adunako Udalak, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 21. eta 22. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak 12. artikuluan informatzeko eta kontsulta egiteko modalitateei buruz ezarritakoa betez:

- a) Planaren edo programaren aurretiko bertsioari eta ingurumen azterketa estrategikoari buruzko kontsulta egitea ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei.
- b) Jendaurrean jartzea planaren edo programaren aurretiko agiriaren eta ingurumen azterketa estrategikoaren informazioa, aldizkari ofizialean iragarki bat argitaratuz, eta gutxienez 45 egun ematea agiri horiek aztertzeko eta oharrak egiteko.

Aurrekoaren ondoretarako, ukitutako administrazio publikotzat eta interesduntzat hartuko dira Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak irismeneko dokumentu hau idazteko kontsultatu dituen administrazioak, erakundeak eta pertsonak (agiri honen 2. atala), eta Udalak planaren izapidean identifikatu ahal izan dituen gainerako erakunde eta interesdunak (ukitutako lurren jabeak, auzokoen elkarteak, eta abar).

10.- INGURUMEN ADIERAZPEN ESTRATEGIKOAREN ESKAERA ETA JENDAURREKO INFORMAZIO ALDIAREN ONDOREN PLANEAN EGINDAKO ALDAKETAK, HALAKORIK BADA

Adunako Udalak ingurumen adierazpen estrategikoa egin dezala eskatuko dio Ingurumen Administrazioeko Zuzendaritza Nagusi honi, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, 24. eta 25. artikuluetan eta 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, planen



eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenak, 13. artikuluan ezarritakoa betez. Eskaerarekin batera, ingurumen ebaluazio estrategikoaren espediente osoa aurkeztu beharko du. Honako hauez dago osatuta:

- HAPOko hirigintzako dokumentuak.
- Ingurumen azterketa estrategikoa.
- Dagokion araudi sektorialaren arabera nahitaezkoak diren txostenen eta kontsultako eta jendaurreko informazioko izapideetan egin diren alegazioen kopia.
- Adunako Udalak idatzitako laburpen bat, HAPOaren azken proposamenean alderdi hauek nola sartu diren azaltzeko: ingurumenekoak; ingurumen azterketa estrategikoarenak eta irismeneko dokumentuari egokitzekoak; egindako kontsulten emaitzak; eta horiek kontuan hartzeko modua.

Bestalde, kontuan hartu beharko da, aldaketak egiten badira planaren izapidean eta kontsultako eta jendaurreko informazioko izapidearen ondoren, eta ebaluatu gabeko eragin nabarmenak izan baditzakete ingurumenean edo, nolana ere, 211/2012 Dekretuko 4. artikuluan jasotako balizko kasuetako bat gertatzen bada, udalak horren berri eman beharko diola zuzendaritza honi, planean edo programan aldatutako alderdiak ebaluatzeko beharrezkoa den dokumentazioa ere atxikita.

Donostian, 2024ko uztailaren 9an

INGURUMEN ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARI NAGUSIA,

Sin.: Izaskun Gómez Cermeño